

URA eta ERREKAK

URAREN eta AURRERAPENAREN

KULTURA BERRIA

Flubiozoriontasunaren esperientzia



BERGARAKO UDAL ARTXIBOKO EH DUMA (L. Arregi). Egilea: Etxezaguita.

UDALAREN AGURRA

Azken urteetako ohiturari jarraituz aurten ere iritsi da Bergarako Ingurumen Astea. Aurtengoan udalak, "Media bizirik" Ingurumen taldearekin elkarlanean, Uraren Kultura Berria ezagutu eta ezagutzera eman nahi du.

Honetarako kultura honetan aintzidariak diren hainbat aditu gonbidatu ditugu.

Gure ustean, Euskal Herriko ibaien kudeaketan uraren kultura berriak ekarpen baliotsua eta beharrezkoa egingo du. Herritarrek aukera izango dute momentu goxo bat pasatuz errekek duten balio sozial, ludiko, estetikoez... jabetzeko.

Bukatzeko eskerrak eman nahi diegu hau aurrera eramaten lagundu diguzuen guztioi; Mendia Bizirik taldea, Txomin Amasorrainen sendia, herritarrak...

Bergarako Udala
2012-03-19

“Ingurumen jardunaldiak 2012
Hitzaldi/kontzertu/erakusketaren eskuliburua”
Bergara, 2012ko martxo

MONTSE CASTELLÀ (Abeslaria)

Nace en Tortosa el 1976. El paisaje, la tierra, los ríos, la justicia, los sentimientos, marcan su obra. Carpe Diem y la bondad es revolucionaria son dos de sus lemas. De sus abuelos payeses aprendió a amar la Tierra y sus aguas. Le puso banda sonora al mensaje de sus antepasados y ahora lo lleva por los escenarios, cantándole a la vida, la dignidad y la naturaleza desde uno de sus lemas favoritos: la bondad es revolucionaria.

Se dedica profesionalmente a la música desde 1998. Tiene tres discos editados y en sus conciertos se acompaña de piano y guitarra. Además, Montse lleva el timón de la productora cultural lo fardatxo (sinónimo de lagartija en el dialecto catalán tortosino) desde donde promociona sus creaciones, encargos de composición, discos, espectáculos y conciertos,

Web: www.montsecastella.com

Em@ils: montse@montsecastella.com / montsedelta@hotmail.com

Facebook: www.facebook.com/montsecastella-music

Canal de youtube propio: www.youtube.com/fardatxeta

Twitter: www.twitter.com/montsecastella



És com un miracle

Aquell riu ample i feliç, amb tarongers florits. I més amunt la terra roja i dura, d'oliveres i de vinya. Vinyes verdes vora el riu, ara que el vent bufa i bufa. Lo sol ja deu sortir en aquests moments i escampa de roig tota la façana dels Ports. Per algú que ve del Priorat acostumat a un paisatge on després d'un turó sempre en ve un altre, trobar-se amb la plana que travessa l'Ebre és com un miracle. És com un miracle.

Dolça remor de l'aigua en el record. Blau lo mar a llevant, blau d'aigua blava, d'aigua de mar salada. Serrells d'escuma platejats fan pessigolles a l'horitzó.

Te trajo el río

Te trajo el río, aún sin mucho caudal arrastró tu alma hasta el mar. La sal de la vida envuelta en libertad. Tanto tiempo sin saber de tu existencia y resulta que una parte de mi alma era tuya. Y viceversa. Te trajo el río, a golpe de remo moldeabas el agua, esculpías bondad. Te trajo el río con un abrazo eterno desafiando las leyes del tiempo.

Te trajo el río, con tu intrínseca bondad. Te trajo el río y ahora soy muy feliz simplemente sabiendo que existes.

Qué relativo que es el tiempo: lo poco que hace que nos conocemos y lo mucho que me importas. Mi mano estará en tu frente cuando tosas, me exprimirás zumos de naranja, cuidaré de ti en la distancia. Te trajo el río y canto mejor desde que te conozco porque mi voz se acuerda de ti.

Pasaba el año sin más novedad y apareciste con piraguas y mandarinas y ahora tengo la certeza de que lo mejor de cada año nuevo que venga va a ser compartirlo contigo. A tu lado he aprendido a respetar el pulso de las personas, como respeto el fluir del agua.

En el espejo de tu agua seguirá navegando mi barquito velero sintiendo fluviofelicidad. Te trajo el río...

JAVIER MARTÍNEZ GIL

*Francisco Javier Martínez Gil es doctor en Hidrología por La Sorbona y doctor en Ciencias Geológicas por la Universidad de Barcelona. En 1971 fue Premio Nacional de Investigación del Consejo Superior de Investigaciones Científicas y ha recibido el Premio Ramón Pignatelli a los mejores trabajos periodísticos. Ha sido catedrático de Hidrogeología en las Universidades de Salamanca (1972/79) y Zaragoza (1979/2009). Estudiante de la hidrología del Ebro, analista de las políticas del agua en España y conocedor y estudioso de los grandes conflictos del agua, ha pronunciado más de un centenar de conferencias al respecto, y ha escrito libros como Los ríos de España, Agua y medio ambiente en Aragón y La nueva cultura del agua en España. Es miembro fundador de Coagret y de la Fundación Nueva Cultura del Agua, presidente del comité local del I Congreso Ibérico sobre Gestión y Planificación del Agua (Zaragoza) y copresidente del comité científico del II Congreso (Oporto). **Es el padre de la expresión, hoy tan divulgada, “la nueva cultura del agua”.***

<http://www.unizar.es/fnca/index3.php>



URA ETA ERREKAK

URAREN ETA AURRERAPENAREN KULTURA BERRIA

Flubiozoriontasunaren esperientzia

Fco. Javier Martínez Gil
Hidrologiako katedradun emeritua
Zaragozako unibertsitatea
Fundacion de la Nueva Cultura del Agua
(Uraren Kultura Berriaren Fundazioa)

I.- ERREKAK: ZER DIRA ETA ZER ESANAHI DUTE?

Urari buruz hitz egiten dugunean, nahitaez, ur gezari buruz aritzen gara, kontinenteetako gainazaletik erreketan doan urari buruz, lur-azpitik iturburuetara, ingurune hezeetara eta urmaeletara irteten den urari buruz eta baita egunak, asteak eta hilabeteak euririk egin gabe pasa ondoren, ura eramaten jarraitzen duten errekei buruz ere.

Kontinenteetako ur gezak, gainazalekoak zein lur-azpikoak, jatorri meteorikoa du; horrek esan nahi du, noizbait, Lurraren gainazaletik lurrundu zela, atmosferan kondentsatu zela eta berriz ere Lurrera itzuli zela euri edo elur eran, *ziklo hidrologikoa* delakoa osatuz. Aipatutako ziklo hidrologikoari esker ura ondasun agorrezina da, lurruntzen den ur guztia itzultzen delako grabitateari ihesik egin gabe; ura etengabe berritu eta garbitzen da eguzki-erradiazioari esker aktibitatea mantentzen duen eta alanbik natural moduan funtzionatzen duen atmosferan.

Batez besteko balioa pixka bat aldatzen den arren esan daiteke, urtez urte, ziklo hidrologikoak ur-kopuru bera mugitzen duela, orotara, Lur osoarentzat; mugitutako ur-kopurua, teorikoki behinik behin, ozeanoen eta kontinenteen kokapen latitudinalaren bariazioaren arabera izango da eta bariazio hori geologikoki neurgarria den 600 milioi urteko zikloetan ematen da.

Lurreko toki bakoitzean zikloak uzten duen urteko prezipitazioa ere batez besteko balio baten inguruan mugitzen da eta zikloaren bitartea eskualdeko testuinguru hidroklimatikoaren arabera izaten da, mediterranea, montzonikoa, tropikala izan daitekeen testuinguruaren arabera; testuinguru hidroklimatiko horrek oso lehorrak, lehorrak, normalak, hezeak izan daitezkeen urteak edo urte-multzak ematen dizkigu.



Ur geza, beraz, ez da agortuko eta Lurreko bizia ez da desagertuko deshidratazioagatik, are gutxiago gizakia, nahiko baliabide eta teknologia baititu eskura horrelakorik ez dadin gertatu.

Badugu desagertzeko arriskua eta desagertuko gara noizbait, behar bada uste baina lehenago, espezie guztiekin gertatu den moduan, inor ez baita betiko izan, baina ez da izango ur-faltagatik. Desagertzeko arrazoiak beste batzuk izango dira: harmonian bizi izateko gaitasun-eza, neurriz kanpoko diru-goseak eragin eta, teknologia arloan dugun jakinduriaren eskutik, auto-suntsiketara eraman gaitzakeen ezohiko biolentzia.

Ura *geza* dela esaten dugu 1,5 gramo gatz baino gutxiago dituenean disolbatuta litroko. Itsasoko eta ozeanoko urak, berriz, batez beste 34,5 gramo gatz ditu litroko. Bi balio horien arteko gatz-kopurua duen ura ur gazikara dela esaten dugu. Gatzgabetzeko teknologia modernoek esker, itsasoko ura, ur *geza* lortzeko iturri agorrezin bihurtu da. Nahiko genuke beharrezkoak diren lehengai guztien ezipurutasuna 34 g/l izatea!

"Ezipurutasun" hori kentzeko energia kontsumitu beharra dago zelulosa, burdina, aluminioa... lehengaitik lortzeko kontsumitu beharra dagoen moduan edo hiri-mugikortasuna lortzeko kontsumitu beharra dagoen moduan. Hirian kotxez 1,5 Km egiteko (20 minutu osasungarri oinez)

beharrezkoa zaigun energia-kontsumoarekin 1.000 litro itsasoko ur gatzgabetu genezake. Erreferentzia modura esan dezakegu gure etxeetako ur-kontagailuek adierazten dutenaren arabera, gutxi gorabehera, 125 litro ur baino ez ditugula gastatzen egunean pertsonako. Zenbat aldiz egiten ditugu hilean alferrikako 1,5 Km?

Ur geza oinarritzkoa da landareen elikadurarako eta elikadura hori, berriz, oinarritzkoa da animalien eta gizakien kate trofikorako. Landareek ur geza baino ez dute onartzen; geza ez bada sustraietan ematen den prozesu osmotikoak kale egiten du eta lehenago likido zoragarria zen urak industrian erabili ahal izateko eta animaliek zein gizakiak kontsumitu ahal izateko zituen propietate ia gehienak galtzen ditu.

Uraren egoera-aldaketa (gas izatetik likido edo solido izatera eta berriz ere gas izatera pasatzen da) planeta-mailan ematen da eta Lurraren berezitasun kosmiko handia da, ura altxor bihurtzen duen dohain zoragarria, Lurra eguzki-sistemako gainontzeko astroetatik bereizarazten duena.

Gizakia konturatu zenean eguzki-argia eta ura zirela bizia ahalbidetzen zutenak Lurrean, uraren balio gorenaz jabetu zen baina, aldi berean, uraren jatorri misteriotsuarekin harritu zen: “zerutik” –jainkoen bizilekutik-aldizka eta era bukaezinean erortzen zen mana modura edo askotan agorrezinak eta emaritsuak ziren iturburuetatik irteten zen lurraren barrenetik –beste jainko batzuen bizilekutik-, modu misteriotsuan.

Ibaiak, itsasoranzko betiereko ibilian, Lurrean ur gezak duen presentziaren adierazpenik garrantzitsuenak izan dira eta dira gaur egun ere. XVII. mendera arte ez zen ulertu Ecclesiastesen aipatzen den “itsasoa inoiz ez betetzea”ren gertaera enigmatikoa. Fenomeno naturala den *ziklo hidrologikoa* ulertzean argitu zen aipatutako misterioa.

Ur gezaren jatorri misteriotsua eta agorrezina zirela eta, kultura guztietan ura errespetu handiz tratatu beharreko jainkoen dohaintzat hartu zen eta gizakiak jatorri, izaera eta zentzu jainkotiarra eman zizkion, ezinbestekoa baitzen Lurrean biziak irauteko.

Arrazoi horiek direla eta gizakiak, betidanik, ur gezetan materializatu du bere pentsaeraren abstrakzio gorenena: *purutasun-aren* kontzeptua, urak bere baitan perfektutasunaren nolakotasun izugarria, garbitasunari eta jainkotasunari lotutako ondasuna, izango zuela uste baitzuen.

Hori horrela izanik, uler daiteke zergatik bedeinkatu diren urarekin mendeetan zehar gauzak, gizakien ekintzak, uztak, bizia eta heriotza. Ur

gezarekin garbitu dira arimetako miasmak, ur gezarekin barkatu dira bekatuak eta ur gezarekin itzuli da gizakia graziaren mundura -Guztiarekin harmonian eta jainkotasunaren parte izateko egoera emozionalera-.

Hori dela eta, kultura guztietan, sortzetiko ur gezarekin eraman dira aurrera garbiketa purifikatzaileak, esate baterako bataioak. Halaber, ur gezak erritual multzo handi batekin izan du zerikusia eta *emankortasunaren* sinbolo unibertsala izan da, beti ere, emankortasuna heriotzaren ideia gainditzen duen adierazpen metaforikotzat hartuta; emankortasuna prozesu magiko bat da eta prozesu horretan uraren bidez biziaren etengabeko eta betiereko berritzea ematen da.

Kultura askotan iturburu edo putzu batetik hartutako ur garbia eskaintzea edateko *abegi onaren* sinbolorik nagusia izan da. Bestalde, eta baita antzinatek ere, kosmogonia guztietan uste izan da Lurreko bizia uretatik sortu zela eta uste hori, gerora, zientziak baieztatu ahal izan du.

Kultura panteistetan erreketako eta iturburuetakoa ura Lurraren odolatzat hartu izan da eta errekek eta errekatxoak, berriz, arteriatzat eta zaintzat. Ibaiertzetan jarri ziren bizi izaten lehenengo giza taldeak, herriak handitu ziren, hiriak garatu ziren eta kultura handiak zein txikiak sortu ziren.

Ibaiak pasatzen diren lurraldeetako berezko osagaiak dira; errekek lurraldeetako izaera eta ibaiertzetako pertsonen nortasuna konfiguratu dute. Errekek, agorraldiekin eta goraldiekin, lurraldeetako bizi-zikloak zehaztu dituzte eta lurraldeen esentziaren zati intrintsekoa izan dira. Uraren ibilia, haizearen ibiliarekin batera errekaaren ahotsa da. Uraren murmurioa imitatu nahian txoriek kantuan ikasi zutela esan ohi da.

Errekek pasatzen diren herrietako ohituren, bizimoduaren eta historiaren garrantzizko elementuak dira eta ezin dira horietatik guztietatik banandu; erreka ondoko biztanleek ura hartu dute errekatik baina, aldi berean, errekek garrantzitsuak izan dira beraien elikaduran; milaka urtean zehar proteinen iturri publikoak, unibertsalak eta seguruak izan dira errekek, zenbaitetan elikadura-subiranotasunaren oinarri eta bermea.



Hori dela eta, erraz uler daiteke zergatik izan diren errekek memoriaren, historiaren, nortasunaren eta kulturaren ondare ibaiertzetako herrientzat; gozamenaren, edertasunaren, ongizatearen eta sozializazioaren gune. Herri askok dituzte erreken izenak euren baitan.

Tamaina dezenteko ibaiak garrantzizko lehen komunikabide naturalak izan ziren lurraldeetan eta bertan eman ziren pertsonen joan-etorriak eta merkantzia-trukaketak.

Ezingo genuke Bilbo eta bertako biztanleen historia ulertu Nerbioia alde batera utzita, ezta Donostiakoa ere Urumearik gabe edo Gasteizkoa Zadorrarik gabe, Bergarakoa Debarik gabe, Lizarrakoa Egarik gabe edota Baztangoa Bidasoarik gabe. Errekek garrantzi handia izan dute aipatutako toki horietako guztietako historian; lurraldea bezain lekuko zaharrak dira, bertan baitzeuden lehenengo baskoiak iritsi zirenean.

Gertaera hori, gure sustraiei sor diegun errespetua eta gizakiaren ezaugarria den duintasun-zentzua kontuan izango bagenitu, ezinbestekotzat jo beharko genuke ibaiak errespetu bereziz tratatzea eta osasuntsu eta urertzak garbi mantentzeko konpromisoa hartzea, kaleekin egiten dugun moduan. Modu horretan jardungo bagenu geure buruak eta gure arbasoak errespetatuko genituzke eta lotura garrantzitsuak ezarriko genituzke urertzean bizi izaten jarraituko dutenekin, gure ondorengoekin, ibaiak sartuko baikenituzke euren bizitzetan. Gutxieneko duintasun-zentzua nahikoa izan beharko litzateke gure antzinako historiaren sehaska txerritoki ez bihurtzeko, errekek, degradatuta, hil zorian, pultsurik gabe eta erabat zatartuta ez izateko.

Gaur egungo erreken espoliazio-maila kontuan izaten badugu, ezin daiteke egon Estatuan arrazoi moralik edo giza inteligentziarik negozio berri baten oportunismoaren izenean, interes orokor faltsu baten izenean edota aldi baterako sor daitezkeen lanpostu batzuen izenean (ezin jakin gainera zenbat iraungo duten lanpostu horiek) ibaien degradazio ikusgarria eta desnaturalizazioa onar lezakeenik. Katedral bat zaintzeko eta mantentzeko izaten dugun arreta berarekin zaindu beharko genituzke ibaiak, errentagarritasunaren izenean ez baikenuke inoiz gure ondarea txerri-korta edo kasino berri bihurtuko.

Ibai handien izaera ongilea, ondare-balioa eta balio sinbolikoa kontuan hartuta -ibai horien inguruan eraiki ziren bizitza ekonomikoa, bertakoen bizimodua eta usteak eta kulturen sorrera- sarritan, “aita” izenarekin deitu izan diegu: Ebro aita, Rhin aita, Danubio aita, Nilo aita... Bete zenbait ibai, berriz, historian zehar *sakratutzat* hartu izan dira eta errespetu sakon eta berezia merezi izan dute, hala nola, Ganges, Indo, Narmada, Nilo, Jordan, Amazonas etab.

Bizi anitza eta osasuntsua duten ibai osasuntsuei begira egon direnak, ibaiei esker iritsi dira biziaren ulermen gorena eta Guztiarekin bat-egitea lortzera. Gizakiaren eta elementu naturalen -sua, lurra, airea eta bereziki ura- arteko harremana aztertu izan dute goi-mailako filosofo eta psikoanalistek; esaterako, maila intelektual handiko Gaston BACHELAR-ek “L’eau et les rêves” lan famatuaren amaieran honako hau esan zuen:

“Uraren ondoan ulertu ahal izan dut irudimena emanazioan dagoen unibertsoa dela, gauzei begira dagoen ameslariaren bitartez gauzetatik irteten den arnasa sakona. Uraren sinbolismoa ulertu nahi badut nire herrialdeko errekek eta errekatxoek nigan izan duten zeresan garrantzitsua kontuan izan behar dut. Erreka eta errekatxo betetako herrialde batean jaio nintzen, bailara txikiz betetako Champagneko Vallagen (horrela deitzen da bailaratxo kopuru handia dagoelako bertan). Bizilekurik ederrena niretzat bailara horietako batean egongo litzateke, ur biziak dituen erreka baten ondoan, sahas eta zumeen itzalpe laburraren azpian” (BACHELARD, 1942).

Behar bada, Herman HESSE izan da erreka baten ibiliak gizakiarentzat duen balio gorena eta metafisikoa egokien azaldu duena. Mundu guztian ezaguna den “Siddharta” lanean, izen bereko pertsonaia, bere esperientzia pertsonalari esker, uraren ibili hutsak duen balio metafisiko sakonean pentsarazten digu.

Umetatik heriotzaren ideiak eta EZEREZERA pasatzeak sortzen zion bizi-larritasunean ito beharrean aurkitzen zen Siddharta eta urte batzuetara erreka baten ibilari begira zegoenean aurkitu zituen hain beharrezkoak

zituen ulermena eta bakea. Ulertu zuen erreka itsasora iristen denean ez dela azken xedera eta heriotza-tokira iristen; ulertu zuen itsasoan ura garbitu egiten dela, bidean jasotako miasmak bota eta lurrin –errekaren arima hilezkorren irudi metaforikoa- bihurtzen dela; ulertu zuen lurrin hori, denborara, kondentsatu egingo dela, laino bihurtuko dela eta euri edo elur moduan jausi ondoren, iturburu berri batean birjaioko dela..., eta berriz ere erreka izango dela! Horrenbeste urtetan aurkitu nahian ibili ondoren, hain beharrezkoa zuen bakea aurkitu zuelako pozik, Siddharta-k errekak ezagutzera eman zionaz eta sentitzen zuen pozaz hitz egiten digu.

Ezbairik gabe, gizakiak errekarekin –balio naturala eta imajinaezina den ahalmen oroitazalea duen errekarekin- izan duen eta izan dezakeen lotura emozional berezia adierazteko era literarioa da.

Herman HESSE-k helarazten digun jakinduria bera azaldu zuen Nohad SEATHEI indiar-buruzagiak, sasoi hartan sortzen ari ziren Ipar Amerikako Estatu Batuetako Lehendakariari, 1855. urtean, bidali zion gutun famatuan. Indiar buruzagiak ondo ezagutzen zituen zurien portaera zuzentzen zuten diru-gosea eta konkistarako eta botererako grina patologikoak. Zuriek adierazi ziotenean, betidanik, indiarrek naturarekin harmonian bizi zireneko lur zabal gehienak erosi nahi zituztela eta sinistarazi nahi izan ziotenean nahikoa izango zuketela lur horien zati txiki bat euren ohiko bizimoduarekin jarraitu ahal izateko, indiar buruzagiak ezetz esan zien, ezin zituela lur horiek saldu, ez zirelako ez eurenak ez eta beste inorenak ere. Indiar buruzagiak esan zien Lurra eta Lurreko ondasunek, hala nola, aireak, euriak, elurak, errekek, mendiek eta zelaiek ez dutela jaberik, Lurrarenak direla; gizakiok Lurraren seme-alabak garela eta errespetuz tratatu behar ditugula gauza horiek denak, ama Lurrarengan eta etorkizunean biziko diren belaunaldien eskubideetan pentsatuta.

Badakigu zuriek ez dutela gure bizimodua ulertzen. Arra bete lur guztiak berdinak dira berarentzat; gaez iristen den arrotza da, lur-zati bakoitzetik beharrezko duena hartzen duen arrotza. Lurra ez da bere ama, bere etsaia da; konkistatu ondoren bidean aurrera egiten du eta atzean lagatzen du gurasoen hilobia inolako garrantzirik eman gabe (...) Lurra erosi, ustiatu eta saldu daitekeen zerbaite izango balitz moduan tratatzen du (...).

Erreka eta errekatxoetako ur garbia ez da ura bakarrik; gure arbasoen odola eta historia irudikatzen ditu. Lur horiek salduko bagenizkizue gogoan izan beharko zenukete ura sakratua dela eta hori bera irakatsi beharko zeniekete zuen seme-alabei ere (...). Uraren murmurioa nire gurasoen gurasoen ahotsa da.

Erreferentzia metafisiko labur horiekin guztiekin nabarmendu nahi dut gizakiak, historian zehar, oso erlazio emozional berezi eta sakona mantendu duela ur gezarekin, ur gezarekin oro har, eta errekekin bereziki; gizakiarentzat ibaiak ordenarik eta neurririk gabe ustiatu daitekeen baliabidea baino zerbait gehiago izan dira, ibaiak onura ekonomikoaren oportunitatea eta berehalakotasunerako grina helburutzat hartuta ustiatu daitekeen baliabidea baino zerbait gehiago izan dira, ibaiak ez dira izan mineral bizigabea, ibaiak ez dira izan saldu, erosi, zatitu edo eskualdatu daitekeen zerbait; gizakiak ezin du ahaztu zer suposatzen duen lurraldearentzat eta jendearentzat uraren presentzia biziak eta errekak dakarzkigun oroitzapenak.



Naturari buruz, ulertu egin behar da ibaiak bizitzaren ekosistemak direla; bertan guzti-guztia elkarrekin erlazionaturik dago, CALDERSen egitura ospetsuetan bezala: ehunka palankaz eginak, beso disimetriko eta karga desberdinak dituzten palankak, eta bukaeran forma eder bezain egonkor bat osatzen dutenak; baina nahikoa da horietako bat aldatzea,

baita txiki-txikiena izanda ere, multzo osoa astiro deskonposatzen hasteko, oreka berri baten bila.

Gaur egun, ustiaketa-sistemek eta gure bizimoduak berak egunero hondakin eta zabor pila sortzen dute; eta hori oraingoz errealitate saihestezina bada ere, horrek ez digu baimenik ematen edonon zaborrak barreiatzeko, lurralde guztia zatartasunez eta osasungaiztasunez betez; horretarako hondakindegia diseinatu ditugu, non hondakinak jaso, ordenatu, tratatu eta haien zatartasuna ezkutatzeko den, eta haien eragin negatiboak kontrolatzen diren..

Errekekin ez dugu horrelako joerarik izan; badirudi erreketan libre dugula dena edo ia dena, dauden tokietan guk eskura izateko eta guri komeni zaigun moduan ustiatzeko bakarrik egongo balira bezala, naturaren edertasunarentzat eta ordenarentzat ezer gorde edo zaindu gabe.

Sentsibiltate gehiago duten lurraldeetan, badaude hainbat arlo, goi-ibar, erreka oso edo tarte berezi babestuta, "erreka eszeniko eta basatia" dioen kalifikazioa dutenak. Horrek ukitu ezineko ondarearen kategoria ematen die; naturaren, edertasunaren eta eskaintza ludikoaren ondarearena, hain zuzen. Gaurko eta hurrengo belaunaldien eskubidea da, balio bat, orain den hori izaten jarraitu behar duena: erreka, non hemendik aurrera ez den onartuko garrantzizko degradaziorik. Bete betean asmatu da; politika-mota honek ez du diru publikorik xahutzen eta arrakastatsua izango dela aurreikus daiteke. Aspaldiko lagun bikain batek, ekologiako katedradunak gainera, askotan haxe esaten zuen: lurralde batean jendeak gizarte-kolektibo gisa duen heldutasun-maila baloratzeko, nahikoa da begiratzea errekek nola kontserbatzen, zaintzen eta errespetatzen dituzten.

II.- NOIZ HASI ZEN HONDAMENDIA

Orain oso gutxi arte —diru-gosea eta botererako grina neurrigabeak bideratuta, naturaren ondasunak inolako mugarik gabe ustiatzean oinarritutako aurrerapen-dinamika bati lotutako denborak iritsi arte—, milurtekotan zehar, gizakiak errekez eta haien urez baliatu izan gara edateko, gure elikagaiak prestatzeko, abereak mantentzeko, lurrak ureztatzeko, arrantzan egiteko, errotak eta pilak mugitzeko, meategietan minerala garbitu eta mea eta ganga bereizteko, lurraldean zehar batetik bestera joateko eta, askoz oraintsuago, haren indar eragilea aprobetxatuz, argindarra sortzeko. Argindarraren negozioa, urte gutxitan, aurrerapena eta gizartearen eskaria aitzakiatzat hartuta, erreka guztiak erasotzen eta hondatzen joan da eta haietaz jabetzen; gerora aerosorgailuen negozioak paisaiaren zeruertzekin egin duen bezala, neurririk gabe industrializatuz.

Industrializazio-prozesuaren aurretiko denbora horretan guztian zehar, ur geza ondasun amaigabea izan zen, besterik gabe, gizakiak betidanik jakin izan zuelako kokatzen eta garatzen ura eskuzabal, iraunkor eta ugaria zen tokietan, ura gizakiaren beharrak asetzeko lain zegoen tokietan betiere. Orduan, gizakiaren jardueraren eragina tokian tokikoa zen, garrantzirik gabekoa oro har; hortaz, erreken funtzio naturalak eta haien esanahia mantendu egin ziren. Errekekin genuen erlazioa berezia zen betidanik; beste edozein baliabide edo ondasun naturalekin ez da horrela gertatu, ez mineralekin, ez ikatz, gas edo petrolioarekin, Lurraren jardueraren metabolito bizigabeak izanik.

Ura ingurunearekin elkarreragilea da oso; hortaz, dagoen tokian dagoela, ez da bakarrik substantzia kimiko bat, ez bakarrik ustiatu eta jabetu daitekeen baliabide preziatu bat; horretaz gain, hark sortzen duen, elikatzen duen, oroitarazten duen eta irudikatzen duen guztia da, eta baita haren mende dagoen guztia ere. Prozesu industrializatzailea iritsi zenean, bota beharreko substantzia arrotzak eta hondakin likidoak halabeharrez sortzen zituen, haiek diluitu eta botatzeko errekek aukerako hustubidetzat hartu zituzten. Horrela, oso denbora gutxian, errekekin geneukan lotura emozional guztia aldatzen hasi zen, gure aurrerapenaren Errauskine zikinak bihurtu ziren. Baina hamarkada batzuk geroago, gure basakeriak hondoa jo zuenean, araztegiak iritsi ziren eta, haiekin batera, pixkanaka-pixkanaka, errekei aurpegia garbitzeko beharra, eta "denak ez du balio" leloa, nahiz eta ez izan dena lehengoa bezalakoa, eta nahiz eta inor ez ausartu "araztegi" esaten diegun tramankulu horien efluenteetako batean bainatzen. Askok eta askok oraindik gogoan dauzkagu bitsez betetako erreka koloreaniztun haiek, Oria edo Urumea besteak beste.

Isurketak, argindarra sortu beharra, lurraldeko barnealdetik itsasaldeko kaletara nabigatuz lehengaiak eramateko bide natural gisa errekek jasan duten egokitzapena, eta horretarako egindako presak, dragatze-lanak, dikeak eta kanalak —esklusa sistemekin eta horiek nabigazio-bide den bati dakarkioten degradazioarekin—, eta horiekin batera laborantza ureztatuen bat-bateko hedapena, eta ur-nahiak gero eta gehiago izatea —eta lan hidraulikoen teknologiak nahi horiek gauzatu ahal izatea—, horiek guztiak izan ziren oso hamarkada gutxitan errekek eta bertako urak neurritz gaineko diru-gosearen xede bihurtu zituztenak, merkantzia hutsa, ustiatzeko emakida-sistema eskuzabalen bitartez horietaz jabetzeko nahian —ehun urte inguruko epeaz, belaunaldiz gaineko epe-denboraz ustiatzeko, biziartekoan ez direnean ere—.

Ordutik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, gizakiaren imaginarioan errekek galdu izan zuten izaera sinboliko, emozional, kultural hori, proteina-iturri

publikoa izan zirela, betidanik aisialdirako eta ongizaterako gunea izan direla; eta baliabide gutiziatua bihurtu dira, otzandu eta ustiatu beharreko merkataritza-ondasun bat —meatze-baliabideak, gasa edo petrolioak ustiatzen diren moduan—, agortu arte.



Urte gutxitan, herritarrak erreka-uretatik eta ibaiertzetatik kanpo bota egin gintuzten; eta errekek gune osasungaitz, degradatuak eta emari murrizdunak bezala ikusten hasi ginen, bertan arrantza egitea debekatuta gelditu zen eta osasun-agintarien ohartarazpenak ugaritu egin ziren. Mundu emozional oso bat desagertu zen toki askotan, agian betirako, aurrerapenaren izenean.

III.- BEGI ITSUAK... NEGARRIK EZ

Gaur egun berrogeita hamar urtetik behera dutenek ez dute apenas ezagutu mundu hura, galdutako paradisu haiek, natura sentitzeko eta naturaren esanahi sakona barneratzeko aukera haiek. Eta ez dakite galdu dutenaren balioa norainokoa zen.

Imajina dezagun estatu totalitario batean urte batean Mozart-en musika entzutea debekatu egiten dutela, eta deuseztatu ere egiten dutela; hurrengo urtean, gauza bera Haendel-en musikarekin; eta hurrengoan

Beethoven-enarekin; eta horrela klasiko guztiekin. Hamarkada batzuk igaro ondoren, belaunaldi berriek —musika klasikoa ezagutuko ez luketen horiek— ez lukete izango ezer galdu izanaren kontzientzia, baina benetan emozioen mundu eder itzela galdu izango lukete. Gizarte osoa, batere ohartu gabe, gizagabetu eta astakirtendu egingo litzateke. Gauza bera esan genezake beste hauei buruz: Greziako klasikoak, literatura unibertsalaren maisu-lanak, Kixotea, Egiptoko piramideak, katedralak, erromatarren galtzadak eta anfiteatroak, leizeetako margolanak eta abar.

Hori da erreken inguruan errekek ezagutu ez dituen gizartearekiko pasatu dena eta pasatzen ari dena; gizarte horrek ez ditu errekek gozatu, ez ditu aspaldiko karramarro haiek harrapatu, ez da errekan bainatu, ez du errekan berrorik hartu, ez du aukerarik izan flubiozoriontasuna ezagutzeko —aurrerago hitz egingo dut emozio goren horri buruz—. Gizarte hori ez da ohartu zer lapurtu dioten, nola despertsonalizatu dituzten lurraldeak, hausnarketa gehiagorik gabe, berehalako etekin materialaren bila doan aurrerapen arduragabe eta errespetugabe baten izenean.

Gaur egun, askok ez dute antzematen errekek gizakiarekiko duten dimentsio emozional eta kulturala; eta gizakiaren eskuz egindako arte- edo kultura-lanek duten besteko edo gehiagoko balioa dutela. Askok eta askok ez dute ulertzen zer nolako suntsiketa, disfuntzio eta bandalismo mailalara iritsi garen errekek ustiatzerakoan. Haien ustez, errekek kudeatzeko eta ustiatzeko, hamarkada batzuk dela egiten zeneko modu berberari jarraitu diezaiokegu oraindik, leku askotan ondasun aske eta ugaria zen denbora hartan egiten zen moduan.

Gaur egun erreka haietatik gelditzen den apurra gordetzeak kultura-arloko edozein ondasun gordetzeak daukan beste garrantzi eta esanahi dauka, edo gehiago. Erreken babesa exijitzen dugunon eskubide morala askoz ere gailenagoa da sektore hidroelektriko boteretsu eta megamilioidunaren eskubidea baino; izan ere, sektore horrek antzinako erreketatik gelditzen ari den apurra erreklamatzeko erabiltzen duen aitzakia da herriak energia garbi horren beharra duela —sektore horrek ustiatu dezakeena, alegia—; baina energia hori ez da hain garbia, erreka baten osasunaren truke doalako, eta gainera gizarteak ere ez du horren beharrik; beste kontu bat da, behin energia sortutakoan, sistemak energia hori berehala kontsumitzeko gaitasuna izatea. Gaur egun ekoiztu dezakegun energia guztia gutxi izango da, betiere, hori erabiltzeko asmatu ditzakegun gauza guztien aldean.

Gelditzen ari den apur hori babesteko guk dugun eskubidea askoz ere gailenagoa da, halaber, ureztatzaileen sindikatu boteretsuren batek ureztatu beharreko azalera edo beren ureztatze-ondarearen balioa

hektarea gutxi batzuk handitzeko izan dezaketen eskubidea baino. Gaur egun dagoen ureztatze-azalera gehiago handitu nahi izatekotan ere, horrek ez du garrantzi handiegirik izango, zatitxo bat besterik ez da gaur egun ureztatze-sisteman dauden lau milioi hektareen aldean; beraz, lurralde guztia orokorrean hartuta, horrek ez du ezer konpontzen ezta hobetzen ere, ez bada bakarrik jende gutxien —eta ziur aski beharrik gabekoen— etekin pertsonala; aitzitik, diru asko kostatzen da eta diru hori lehentasun handiagoko beste xede batzuei ekiteko izan beharko litzateke; eta gainera, dagoeneko ondasun urri-urria bihurtu den ondare kolektibo bat hondatzen du.

Hitzaldi honekin batez ere nabarmendu nahi dut ura eta errekek —haietatik geratzen ari dena— ezin direla kudeatu jada baliabide huts bat bezala, orain urte batzuk arte kudeatu den moduan, besterik gabe, eta are gutxiago pribatizatu; izan ere, berezko esentziarengatik ondasun publikoa da, eta berez publikoa denak esanahi emozional oso sakonekoa du gizakiaren beraren duintasunari begira; urak, haizeak, itsasoak, euriak, eguzki-argiak eta abar bezala.

Orain dela ia bi mila eta bostehun urte, ARISTOTELESen jakituriak ohartarazi zigun: gizakiak nahi duen gizarte perfektua eraikitzeko —non harmonia, elkartasuna eta konfiantza nagusi liratekeen—, oztopo nagusia diru-gosea da; diru-gosea giza-naturaren berezko gaiztat hartuta, eta bizitza-filosofia gisa moderazioa praktikatzu bakarrik kontrolatu daitekeena.

Paradoxikoki, aurrerapenaren kontzeptu modernoaren oinarria, hain zuzen ere, neurrigabekeria datza, diru-gosean; diru-gosea eragile nagusi gisa hartuta, mundua bolborategi bat bilakatu da, oso sistema hauskorra da, edozein momentutan eztanda egin dezakeena. Diru-goseak zeharo itsutu gaitu, bizitzaren sena ulertzeko eta bereizteko gaitasuna galdu arteraino; izan ere, bizitzaren zentzua ongizate pertsonalaren eta kolektiboaren bilaketa baino ez da, biak ahalik eta zentzu holistikoenean ulertuta, non materiak eta espirituak bat egiten duten, osatu egiten diren, yin eta yan bezala.

Behin eta berriz irudikatzen dugu ongizatea, geure buruei ere "ongizatearen gizarteak" esaten diegu, baina ez dakigu hori zehatz-mehatz zer den; nahastu egiten dugu erakuskeriarako moduekin eta hainbat elementu eskuratzeko ahalmenarekin —obsoleszentzia programatua duten elementu horiek, berehala ordeztzeko modukoak direnak—, eta horrek etengabeko antsietate-egoeran murgiltzen gaitu, mundua gaur egun mugitzen duen egoera horretan; eta horrelako dinamikan, natura eta gizakia bera izan dira eta dira petxero nagusiak.

Hondamendi-ikuspegi orokor horretan, egungo krisialdi ekonomikoan — hainbeste jakin, hainbeste aurreikusi, baina konturatu gabe gainera jausi zaigun krisi honetan—, badago alde positiboa: pixkanaka-pixkanaka begiak zabaltzen hasiak gara eta konturatzen goaz nolako basakeriatan murgilduta gauden aurrerapen-eredu honen azpian; izan ere, eredu honek dagoeneko bereak emanda ditu eta aspaldi hasia da gure kontra egiten — diseinatu genuenon kontra egiten—.

Garapen ekonomikorako eredu handi hau iruzur bilakatu dugu, iruzur antolatua eta handia, planeta mailarako diseinatutako engainua; eta horretan ekonomia ez da jada ondasunak guztion alde administratzeko artea, baizik eta diru gehiago egiteko eta kosta ahala kosta botere gehiago bereganatzeko artea: Hori bai, aurrerapenaren izenean.

Gaur egun munduko sistema ekonomikoaren atzetik dagoen diru-gosea hain da handia non dardarka jarri dituen orain arte ongizatearen gizarteak deitu izan diren horien zimenduak ere. Gizarte horien garapena sotilki oinarrituta egon da eta dago diruaren manipulazioan, engainuan, harrapakeriatan eta, azken finean, indartsuenaren legean; nahiz eta botereko sektoreek temati jarraitu errealitatea ezkutatzeko honelakoekin: zuzenbidearen estatua, erabaki demokratikoak, gehiengoaren borondatearen ahots subiranoa errespetatzea, etab. Balio duena hazkundera bera da, eta are eta botere gehiago boteretsu gutxiago batzuen eskuetan biltzeko dinamika. Gizakiaren beraren garapenak ez du baliorik, prozesurako tresna gisa ez bada.

Botere ekonomikoak hamarkadetan zehar aurrerapen-kontzeptu bat eraikitzen eta elikatzen aritu dira, euren botere- eta menderatze-nahietarako komenigarria izan zaien kontzeptua, eta gaur egun horrek herritarrak nahastu egin ditu, ergeldu; izan ere, haiek diseinatutako kontsumorako produktuek munduaren, gizadiaren eta ongizatearen ikuspegi arin bat suspertu dute eta suspertzen dute, eta horrekin jartzen gaituzte lanean eta nahastu egiten gaituzte, eta dena espoliatzen dute; eta bitartean, dirua egin eta boterea biltzen dute, moralki gero eta eskasagoak diren gizarteetan. Gizarte horietan, hain zuzen ere, pertsonak eroso sentitzea, merkatuan modan dauden azken trasteak erostea nahikoa dute; horrela beren burua babestuta ikusten dute, pribilegiatutzat hartzen dute, baina konturatu gabe zeren truke, zein kastrozioen truke, zein espoliazioen truke, zein desoreka, desberdintasun eta erasoren truke; konturatu gabe zein norabide daramagun, norantz goazen. Eta errekek — duten esanahi guztiarekin— ezin diote basakeria horri ihes egin.



Ez da eduki behar aparteko talenturik edo buru-argitasunik ulertzeko gaur egun jasaten ari garen krisialdi hau, iraunkortasun ezaren krisialdi hau, ez dela bakarrik materiala, baizik eta batez ere espirituala; hainbestearino non arriskuan dagoena gizakien elkarbizitza bera den, maila eta eskala guztietan, pertsonen artekoa, herrien artekoa, kulturen artekoa.

Jakin badakigu iraunkortasun ezaren eta degradazio moralaren prozesu erraldoi batean gaudela murgilduta, mundua gobernatzen duten botereenganako sinesgarritasunik gabe, ezta gure ordezkari politiko zuzenenengan edo gertuen ditugun erakundeengan ere. Ebidentziaren aurrean itsu bezala bizi gara. Hamarkadak daramatzagu bizia eta adimena kontsumitzen etengabeko eta noragabeko ihesaldi batean; indarkeriaren eta elkarbizitzaren krisialdi baterantz abiatuta, orain arte agian inoiz ezagutu edo irudikatu ezin izan diren egoeretarantz. Bere garaian, Jose Antonio LABORDETAk bere ahots-tonu sinesgarriarekin abesti batean islatu zuena da: *"De un tiempo a esta parte vamos camino de nada..."*.

IV.- NOIZ ETA ZERGATIK HITZ EGITEN DUGUN URARI ETA ERREKEI BURUZ

Zer gertatzen ari da gure lurralde guztian urarekin bereziki eta errekekin orokorrean? Zergatik? Zer nolako ondorioak dauzka edo eduki ditzake? Gizarteak arazo gisa bizi ote du hau? Eragiten dion edo eragin diezaiokeen garrantzizko arazo gisa? Eta gizarteak arazo gisa bizi izango balu, zer egin beharko luke?, nola?, nondik egin liezaioke aurre?, nolako baliabideekin?

Arazo batzuk gizarteak ez ditu arazo gisa sentitzen; gizarteak horiek antzemateko, aztertzeko eta balioesteko duen gaitasuna desbideratu egiten baita beste alde batera, jendea beste ardura pertsonalagoetan edo premiazkoagoetan entretenituta edo kezkatuta mantenduz. Gizarteak errealitate zehatz bat arazo gisa ez hartzeak eta, beraz, politikari eta gobernatzailerak kezkarik gabe bizi ahal izateak ez du esan nahi arazorik ez dagoenik, edo arazoa larria ez denik eta egun batean gordin-gordinean eztanda egingo ez duenik; horrela gertatu da, adibidez, gaur egungo krisialdi laboral eta ekonomikoarekin, edo zorraren arazo izugarriarekin.

Igela eta ur beroaren metafora da: ontzi batean, ur hotzetan, igel bat dago; ur hori pixkanaka berotzen doa, eta igela pixkanaka ere egokitzen doa; eta bat-batean konturatzen da —baina ordurako ez dauka ezer egiteko energiarik, ezin du ontzitik kanpora saltorik egin, ezin dio egoerari bueltarik eman— egosi egin dutela.

Beharbada gizartean gehienek bazekiten sutan egosten zeudela, eta egosteko honako su hauek erabili direla: higiezinaren burbuilaren sua, eraikuntzaren sukarra, gainbalioak, hipotekak lortzeko erraztasuna, Administrazioek izan dituzten handikeriak, horietako plantillak handitzea, nola-halako aholkulari pertsonal gisa jarritako sasiaholkularien bukaerarik gabeko mundua —alderdietako jendeari jaten emateko—; politikarien handikeriazko bizimodua, soldata liluragarriak, gastu publikoa arinkeriaz egitea —arinkeria-maila bereko proiektu friboloak egiteko, eta herri-ogasunerako galera besterik ez dakartenak—.

Zerrenda horretan honako hauek daude: aireportuak, autobiak eta autobideak, unibertsitateak ugaritzea —gero eta unibertsitario gehiago lanik gabe dagoenean—, nazioarteko erakusketa garesti baino garestiagoak, joko olinpikoen egoitzak egiteko proiektua, abiadura handiko trenbideak probintzia-hiriburu guztietarako —tokiko politikari salbatzaileek bertako hiritarren konfiantza lortu nahian eskatuta—, bidaiaririk gabeko geltokiak, milioi askoko eta justifika ezineko teleferikoak, luxu garestiko eraikinak, telebista autonomikoak, demagogia eta diru-jana

besterik ez diren proiektu hidrauliko erraldoiak, egundoko planta gezatzaileak egiteko milioi askoko plangintzak —ia-ia erabili ez diren isuraldaketak ordezkatzeko planteatu direnak, horien zerbitzua inork eskatzen ez duenean; eta orain, dagoeneko eginda daudenean, berriz ere beste plan berri bat egiteko dira haien ordezkariak beste isuraldaketa berri batzuk egiteko; azkenean, nahita edo nahi gabe, gizarteak irentsi egin beharko dituenak—.

Arazo bati garaiz heltzeko, lehen baldintza da gizarteak arazo hori dagoela konturatzea, horren kontzientzia soziala izatea. Uraren eta erreken inguruan, une zehatz batean egoera pertsonalarengatik kezka izan dezakeen gutxiengo bat egon daiteke —mehatxatuta sentitzen denean, adibidez, urtegi handi bat egiteko proiektuak euren lurrak urperatuko dituelako, edo urte lehor baten ondorioz ureztatze-sistema batzuk aldzika murrizketak izan dituztelako, edo inoiz uholderen baten eragina izan dutelako—, baina gutxi horietatik kanpo, gizarteko beste guztiei bost axola zaie Espainian omen dagoen ur-arazo hori, eta arazoa benetakoa izanik ere, ez dute euren bizitzetan antzematen.

Hiritarrek etxean edateko ur-hornidura bermatuta duten bitartean, urak kalitate-faltaren zantzurik ez duen bitartean, edo erabilitako uraren tarifak gehiegi igotzen ez diren bitartean, hiritar horiek nekez antzemango dute euren herrialdean uraren inguruko arazorik dagoenik.

Estatu mailan sarri egiten dira inkestak lurraldeko hamar edo hogeita arazo nagusiak zeintzuk diren zehaztu nahian; eta bitxia bada ere, horietan ez da inoiz urarena agertzen, ez kezkatzeko moduko arrazoi gisa, ezta erdi mailako garrantzia izan dezakeen arazo gisa ere; izan ere, gurean, batez ere gutxiengo batzuen arazoa da: alde batetik, onuradunak —boterea duten eta ongi antolatuta dauden gutxiengo batzuk eta haien interesak; Estatuko gobernuan eta administrazioan ere egoten direnak—; eta bestetik, kaltetuak —botere mediatiko, ekonomiko eta sozial urria duten beste gutxiengo batzuk eta haien oinarritzko eskubideak; gizarteari beren arazoa helarazteko ia baliabiderik izaten ez dutenak—.

Horrek ez du esan nahi hainbat egoeratan ura eta errekek aintzakotzat ez direnik hartzen gizartean orokorrean; batzuetan hartu hartzen dira, eta komunikabideek ere islatzen dituzte, indar gehiago edo gutxiagorekin, komeni zaienaren arabera, ildo editoriala eta bezeroek entzun nahi dutena kontuan hartuta.

Uraren eta erreken arazoak noizean behin gaurkotasunera ekartzen dituzte hiritar arruntek, ekologia-munduko jendeak, zientzialariek, komunikabideek, sektore ustiatzaile jakin batzuek edo politikariek. Horren

arrazoiak asko eta ezberdinak dira; batzuetan izaten da tokian tokiko premia iragankor batzuk bete gabe daudela eta berehala konpondu behar izatea, hala nola, herri edo hiri batean edateko ur-horniduran aldizka murrizketak daudenean.

Beste batzuetan arrazoiak izaten da hiri batetik doan erreka-zati batean kutsadura edo degradazio egoera oso kezagarria dela, uren itxura oso txarra delako, usaina dariolako, ibaiertzean zikinkeria dagoelako, edo noizbehinka arrain guztiak hilda agertzen direlako —ustekabeko industria-isurketekin lotuta, etab.—. Horrelakorik gertatuz gero, gertuen dauden eta eragin handien jasaten duten hiritarrek, edo sentsibiltate gehiago dutenek, egoera hori gaitzetsi egiten dute, nahiz arrazoi estetikoengatik edo osasungarritasun publiko eta ingurumeneko arrazoiengatik.

Errekak, halaber, albiste izan ohi dira noizbehinkako uholde larrietan giza-bizitzarik eta/edo ondasun materialik galdu denean; baina baita beste urgoraldi txikiagoetan ere, errekak ordu batzuetan —edo asko botata egun gutxi batzuetan— besterik gabe gainezka egin eta urak uholde-lautadaren zati bat hartzen duenean, eta horrekin batera aldizkako uholde-arriskua duten tokietan zentzugabekeria gehiagoz edo gutxiagoz ezarrita dauden etxebizitza batzuk, industrialderen bat, abeletxeren bat, laborantza batzuk, komunikabide batzuk eta beste tresneria edo instalakuntza batzuk hartu dituenen; izan ere, ura ez da kasualitatez sartzen uholde-arriskua duten tokietan, tximista edo meteorito batek ordea egin dezakeen moduan.

Uholde batzuetan egoera larria izaten da, nabarmen; baina beste batzuetan albiste izateko moduko ikuskizuna besterik ez da, eta komunikabideek egoera handiesteko aprobeztatzen dute, irudi deigarriak, azpтитuluak eta gehiegizko iruzkinak botatzeko betiko joera agertuz; eta askotan, uholde-lautada zati batean hogeitazentimetroko ur-igoera baten irudia hartu eta itsaso zabalarekin konparatzen dute, horrela egun batzuetan zehar ikuskizun soziala eta albiste morbosoa saldu nahian.

Informazio horrekin batera, orokorrean, hainbat bidegabeko sasihausnarketa oportunistak zabaltzen dira politika hidrologiko jakin batzuen alde; eta hausnarketa gehiagorik gabe, haien ondorioz erreklamatzeko dituzte urtegi berriak, erreka-tarte batzuk bideratzeko edo desbideratzeko lan garesti baino garestiagoak, defentsarako dike-sistemak, etab.; eta ondoren, berehala, gure politikari txit argien adierazpen politikoak datoz —hauek ere hausnarketa gutxikoak—; batzuk egoeratik onik atera nahian besterik gabe, eta beste batzuek egoera beren alde aprobeztatuz hauteskunde-etekina atera nahian.

Adierazpen horiek, inoren gogo ez berotzeaz gain, orokorrean egoerei eta gaiari buruzko erabateko ezjakintasuna erakusten dute, ez dute agertzen arazoaren oinarriaren inguruko inolako zehaztasunik, ez hidrologiko, sozial, ingurumeneko, ekonomiko edo kulturalik. Orokorrean, edozein arlotan ibiltzen diren politikariak dira, buruzagi ikus ditzakegu berdin lurraldeko osasun arloan, hezkuntza arloan, ingurumenean edo kanpoko gaietan, eta komunikabideek haien iritziak nahitaez jaso beharko dituzte.

Halakoetan, horrelako uholderen baten kaltetuak izan direnak jendaurrera agertu ohi dira eta hondamendi nazionala aitortzea eskatu. Sektore kontserbazionistek eta zientzialari independenteren batek —aldian aldiko botere politikoaren kontura bizi ez direnez— behartuta ere sentitzen dira jendaurrean agertzeko —komunikabideek aukera ematen dieten artean—, eta maila jasoagoko hausnarketak egiten dituzte; baina komunikabideek ikusten dutenean gaiak ez duela jadanik erakartzen eta irakurleak aspertzen hasiak direla, orduan ahaztu egiten dira eta... hurrengora arte!

Beste batzuetan, ura eta errekek albiste bilakatzen dira aldian aldiko agorraldiak gertatzerakoan, batez ere oso luzeak badira eta horri lotutako ordu-murritzetarik badago herriren bateko edateko uraren herri-hornidurarako sistemetan edo/eta ureztatze-sistema batzuetan. Horrelakoetan, kaltetuek aprobetxatu egiten dituzte komunikabideak eta haien bitartez urtegi handiak eta isuraldaketa berriak eraikitzea eskatzen dute; eta horrela, uholde eta ur-goraldietako kasuetan sortzen den dinamika sozial, politiko eta mediatiko berbera sortzen da.

Komunikabideek, ikuskizuna saltzeko nahiak bultzatuta, handiagotu egiten dituzte horrelako egoerak, honelako izenburuak jarritz: "Sevilla ur gabel!", "Hurrengo bi hilabeteen euririk egin ezean, Bartzelonan edateko urik gabel!", "Zaragozako alkatearen bermea: Ebro ibaitik ur-tanta bakarra datorren artean, Zaragozakoek edateko izango da!"

Hala eta guztiz ere, gurea bezalako lurraldeetan ez da dagoeneko gertatzen horrelako arazorik ezta ondoriozko gorriak jasan beharrekorik ere. Noizean behin gertatuz gero ere, ez dira hain larriak izaten, ez behintzat komunikabideek batzuetan erakutsi nahi izaten dituzten modukoak. Orokorrean arrazoa ez da, hainbeste, baliabidearen eskasia, baizik eta gaizki kudeatzen dela, neurritz kanpoko eta arduragabeko kontsumoa dagoela, banaketa-sareak eskasak izaten direla, prebisio-falta dagoela... edo arazoa aldian aldiko eta iragankor gisa hartzen dela.

Gurea bezalako lurraldeetan, ikuskizun mediatikoaz gain, Mediterraneoko hidroklimatologiako berezko laborantza ureztatu batzuk ustiatzerakoan gerta daitezkeen murrizketez gain, eta kaltetuak izan diren pertsonen bidezko kexez gain, osterantzean lehorteez ez dute arazo handiegirik sortzen jendea janariez hornitzeko orduan, ezta janari berezienak izanda ere.

Barne Produktu Gordinari ere ez dio gehiegi eragiten, eta herrialdeko langabetuen tasa orokorra ere ez da nabarmen hazten. Askoz ere gehiago eragiten dute petrolioaren prezio-igoerek. Egoera albiste den bitartean komunikabideek gehiago edo gutxiago ikuskizun-kutsuaz aurkezten badute ere, azken finean naturako gertaldiak dira eta gizarteak arazorik gabe onartzen ditu.

Gaur egun bizi dugun ikuskizun-kultura honen barruan, edozein arrazoi dela-eta komunikabideek egun batzuetan zehar hitz egiten badute klima-aldaketa bezalako gai batzuetaz —aldian-aldian errepikatzen dira—, orduan ura ere agertzen da egun batzuetan gaurkotasan mediatikoaren gaia bezala, eta ez hainbeste tokian tokiko mailan, baizik eta planeta mailan. Baliteke aurrez prestatutako estrategia editorial bat izatea, ikuskizun mediatiko bat sortzeko ondorengo gaiak erakusteko beharra duena: lehorte handiak; poloetako izotz-masak urtzea, itsasoaren maila igoetzea eta horiekin lotutako egoera apokaliptikoak; horren ondorioz, kostaldeetatik alde egin eta barnealdera joan beharko luketen milioika eta milioika pertsonaren andana; edo gure planetan basamortu bihurtzearen dauden lurraldeak.

Orokorrean, uraren gaia azaletik eta modu erretorikoan aztertzeak erak dira, oso epe luzerako eszenatokiak, eta horrek jendea ez dio kezkarik sortzen, ohituta baitago berehalako abiadura duen aldaketa bakarrik kontuan hartzen.

Izan ere, gobernuek toki horietan gune bizigarriak, industrialdeak eta lurzoruaren gainontzeko okupazio-moduak baimentzen eta sustatzen jarraitzen dute, lurzoru horretan teorikoki itsasoaren maila igo egin badaiteke edo ur-faltagatik basamortu bihurtu badaitezke ere; eta horrela, zehaztu ezineko egun batean, halabeharrez ere inprobisatu egin beharko ditugu bertan beste presazko proiektu hidrauliko erraldoi berriak, isuraldaketa berriak, eta abar, azken finean disfuntzio berri batzuen hazia izango direnak, eta sektore batzuek jarraitu egingo dute horiei ere probetxua ateratzen eta pagotxa biltzen, gaizki egindakoak sarri negozio sortzeko aprobeztatzen dituen gizarte batean.

Etorkizuneko testuinguru horretan, bata bestearen ondorengo gobernuek herritarren aurrean etorkizuna aurreikusteko egindako lanaren irudi bikaina eman ohi dute; horretarako, plangintza hidrologikoak prestatzen dituzte — euren esanetan, "hirugarren milurtekora begira" daudenak—; baina adar-soinua baino ez da, lotsagabekeria; izan ere, gaur egun mundua mugitzen duen errealitatearen aurrean, halako konplexutasun eta dinamismo handiko errealitatearen aurrean, ezinezkoa da aurreikustea zer gertatu behar den ez bakarrik milurteko bateko epera begira, baita urte erdikora ere, nahiz ekonomia arloan, nahiz lanpostuen inguruan, nahiz pentsio, energia, bake, ur edo abarreko gaietan. Inork ezin du irudikatu Abderraman III.ak 2000. urte inguruko Iberiar Penintsulako ur-politikak zehazten.

Komunikabideek ura eta errekek albiste bihurtzeko izaten duten arrazoi sarriena da momentu horietan diskurtso politikoan uraren gaia berpiztu egin dela plan hidrologikoei eta horietan jasotako betiereko urtegi erraldoien proiektuei lotuta.

Halako egoeretan bizi dira, alde batetik, euren bailarak urperatuta desagertuko direlako zuzenean kaltetutako pertsonak. Ez dute nahi erbesterratuak izatea, ez dute nahi euren lurraldea utzi behar izatea, ezta udaberrian ur-biltegi eta uda-udazken aldean lokatzarte bihurtuta ikustea, ezta euren memoria-ondareak itota ikustea, ezta lan hauekin batera etortzen diren despertsonalizazioa eta inbasioa jasaterik ere urteetan zehar, dena hankaz gora jarrita, eta are gutxiago nahi dute euren herriak desagertzea edo lurrari lotutako sentimenduak galtzea, areago pentsatzen dutenean proiektu horiek ez dutela interes orokorrik batere eta ez diotela inoren behar objektiboari erantzuten, baizik eta hainbat joko ekonomikori botere sektorial zehatz batzuetan, hala nola, eraikuntzan, herri-lan handien ingeniartzan, sektore hidroelektrikoan, nekazaritzan, eta lurraren balioaren espekulazioan —nekazaritzako lurrak izan edo turismo eta higiezinaren negozioari lotutako lurrak izan, Mediterraneoko kostaldean—, aldian aldiko botere politikoarekin bat eginda.

Beste alde batetik daude, zuzenean kaltetuak izan gabe, ulertzen dutenak aurrerapenaren esanahi oker baten izenean natura eta edertasun ondarea hondatzen ari den heinean guzti-guztiak garela kaltetuak; eta haiekin batera zientzialari gutxi batzuk ere badaude, konprometituak, eta horien ustez ikuspuntu hidrologiko, ekologiko, ekonomiko edo sozialetik begiratuta lan batzuk justifika ezinak dira zeharo, botere ekonomiko batzuen diru-goseak sustatutako dinamikaren eraginez egiten dira, eta botere horien helburua honako da: ura bezalako ondarearen pribatizazio faktikoa, eta hain beharrezkoa, ordeztetza eta estrategikoa den baliabidea kudeatzea, betiere gizarte-eskariaren, aurrerapenaren eta

interes orokorraren hipokresian oinarrituta, ingurumenaren alde itxurako sasierrespetua agertuz.

Espainian, momentu honetan, 525 herri daude urperatuta; mina darien milaka eta milaka bizipen, batzuentzat irudikatu ezineko mina; Julio LLAMAZARESek azaltzen digun hauentzat:

"Nadie que no haya visto en directo el dantesco espectáculo de un pueblo emergiendo de las aguas al cabo de los años, podrá saber jamás cuánta desolación esconden en su fondo los pantanos. Nadie que ahí no tenga sus recuerdos, sus raíces ni su casa será capaz de imaginar cuánto dolor quedó enterrado para siempre en estos cementerios que se pudren en silencio bajo el agua" (*Cementerios bajo el agua*. Julio LLAMAZARES¹).

Batzuetan, errealitate horren ondorioz sortutako ezintasun-sentsazioak bultzatuta, pertsona batzuek bere buruaz beste ere egin dute, eta beste batzuek azaldu didate etxea edo lurrak utzi behar izatean eragindako mina eta jasan behar izandako irainak latzagoak izan zirela Gerra Zibilak eragindakoak baino.

Herri bat hutsik uzteko, bailara bat urperatzeko, paisaia bat eta bertako biztanleak desagerrarazteko, ia beti indarkeria erabili da, agintekeria, bai diktadura-garaietan, bai demokrazian; orain gutxiko gertakizun penagarri batzuk gogora ditzakegu: Riaño, Janovas, Itoiz, Santaliestra, besteak beste.

Gaur egun, Espainia mundu mailan urtegi handi gehien dituzten herrialdeen artean dago —biztanleko eta azalera-unitateko begiratuta—; beraz, ez dago inoren beharraren arrazoi objektiborik, batere ez, urtegi gehiago eraiki nahiaren inguruan giza- edo ondare-eraso gehiago justifikatu ahal izango duenik. Ez dago arrazoitzeko moduko beharrik edo nahirik pertsoneri eta natura-ondasunei kalte gutxiago eragiteko moduko irtenbiderik izango ez duenik. Hala eta guztiz ere, oraindik erasoak jarraitu egiten du besteen aurrerapenerako euren bidezko zatia dagoeneko ordainduta duten eskualdetan eta bertako jendearengan (Yesa, Biscarrues...).

Zaila da uraren eta erreken kudeaketa arduratsuaz hitz egitea ez baditugu aurretik premisa batzuk garbi. Lehenengo premisa da arazoaren eskalak ez nahastea, egoera ezberdin guztiak bateratuta *totum revolutum* bat *egin gabe*. Lurralde bakoitza errealitate ezberdin bat da, errealitate hidroklmatiko, ekonomiko, kultural eta sozial ezberdina, berariazko

¹ Llamazares es de Vegamián, un pueblo leonés sepultado hoy bajo las aguas del embalse del Porma.

arazoekin. Ezin da nahastu Aragoiko Uraren Ituna eta Chad-eko egoera, eta ezin da esan Ituna martxan jartzen ez badugu hori etorriko zaigula; ezin dira ezta nahastu Israel eta Palestinaren artean urarengatik dituzten istiluak eta Murtzia eta Aragoiaren artekoak, edo Espainia eta Portugalen artekoak. Ezin da ezta uraren ganean baliabide urria balitz bezala hitz egin, eta bitartean barra-barra gastatzen segi; ezin dugu eskasia-egoerez berba egin, eta urak petrolioak baino gehiago balioko duela esan, eta urtegi eta isuraldaketa berriekin ura itsasoan ez galtzeko saiakerak egin; hori ez baita errealtatea, engainuaren diskurtsoaren erretorika baino.

Beste alde batetik, hainbat topiko eta inertzia kultural baztertu behar ditugu gure gizartetik; hain zuzen ere, urtegi handien eraikuntzarekin eta uraren mirari salbatzailearekin lotuta finkatu direnak, eta mezu hauen antzeko ezerezean gauzatzen direnak: *"Aragoi, ura eta etorkizuna"*, beste lelo ezagun honen argudio-arrazoi berbera duena: *"Coca cola, bizitzaren txinparta"*; edo beste lelo hau: *"Ura guztientzat"*, guztiok gure ura daukagunean; horri honela erantzun beharko genion: *"Guztientzat bai, baina ez edozer gauzatarako ezta edozer gauza ordainduta ere"*.

Horrelako mezuekin erraz sortzen dira herritarrengan emozio sasiabertzaleak, eta horiek tresna moduan erabiltzen dira, diskurtso mediatiko eta politikoaren bitartez, obra handi horien alde, kontuan hartu gabe zeinek ordainduko dituen, zein prezio edo bukaerako kostu izango duten, sasiaurrerapena aitzakia gisa erabilita, horren ostean babestuta, eta hori guztia sasiaurrerapen hori berez jasan ezina denean, ase ezineko dinamika exijitzen duenean, ekar dezakeen amaiera bakarra lurralde guztietako holokausto hidrologikoa besterik ez denean.

Egoera eta momentu batzuetan, ura eta errekek ere albiste izan daitezke uraren gaiaz guztiok ulertzen omen dugulako —futbolarekin eta politikarekin gertatzen den bezala—, eta norberak, ustez, beti duelako besteek faltan duten sen on berezia. Hori gertatzen zaie komunikabideetako zenbait tertuliakide eta zutabegileri, denetatik ulertzen bide dutela, eta euren sententziekin herritarrengan iritzi-egoera emozionalak sortzen laguntzen dute, grina dialektikoak sortuz ongileen eta gaizkileen eszenatoki sozial batean, eta handik botatzen dituzten mezu biktimistek manifestazio herrikoiak bultzatzen dituzte, honelako pankartadunak, lelo hanpatsu bezain hutsalekin: "Murtzia egarriz hiltzear", "Ura guztientzat", "Gure etorkizunaren lapurrak", "Besteek soberan duten ura behar dugu". "Elkartasun hidrologikoa", "Ura guztiona da", "Urari buruzko Estatu Ituna behar dugu".

Azken finean, isuraldaketa handien proiektuak beti daude lotuta interes ekonomiko indartsu batzuekin, gune hartzaileetan antolatzen diren interesekin; eta oportunismo politikoak interes horiek elikatu egiten ditu honako aitzakien ostean gordeta: aurrerapena, errentagarritasun ekonomikoa, ingurumenarekiko sasierrespetu bermatua, eta elkartasun hidrologikoaren moralkeria, betiere oinarri gisa nabarmeneko elkartasun-eza duen gizarte eta bizitza politiko baten barruan, eta lehiakortasunaren, abantaila erlatiboen eta oportunismoen poderioz. Proiektuak planteatzearekin edo planteatzeko asmoa azaltzearekin bat, berehalako erreakzioa sortzen da sektore kontserbazionisten aldetik, zientzialari konprometitu gutxi batzuen aldetik, politikoen aldetik; eta komunikabideek hori guztia nahaste-borraste informatibo baten barruan jasotzen dute, non garrantzitsuena den zarata ateratzea eta norbere interes mediatikoa bultzatzea, arrazoiaren argiaren gainetik.

Gizartean gehien-gehienek paso egiten dute, ez diete kasurik egiten, nahiz eta joko horien atzetik diru publiko pila bat dantzan ibili. Egia esan, herritarrek nahikoa dute nork bere gurutzaldiarekin, lanpostua kolokan ikustetik hasi eta etxebizitzaren hipoteka ordaintzeraino doana, bankuen mehatxua atzetik dutela —bankuak, gizarte moderno honetako ase ezineko banpiro galantak, adarra jotzen digutenak honelako leloak isildu gabe errepikatuz: "zuretzat egiten dugu lan", "zure bankua izan nahi dugu", "zu zara gure kezka nagusia"— eta baita telefonia mugikorreko konpainiak ere —adi-adi egotera behartzen gaituztenak, ziria noiz sartuko diguten—.

Lurralde batzuetan, komunikabideen bitartez, erraz manipulatzeko moduko sentimendu hidrologikoaren inguruan lurralde horren berezko nortasunaren zati esanguratsu bat eraikitza iritsi dira; horrela gertatu da Aragoi edo Murtzian. Baina nortasun hori azalekoa da, iragankorra, oportunista, eragindako arazo faltsu baten aurrean kezka azaleratzeko aukera.

Planeta mailan, jakina, uraren inguruko arazoak benetakoak eta larriak dira; batzuk arrazoi naturalak tarte direlako, eta beste batzuk gizakiaren erasoaren ondoriozkoak direlako. Komunikabideek arazoak jaso eta gure gizartean elkarriketatxoren bateko hizpide izatera iritsi daitezke.

Mundu zabaleko zenbait egoeratan ur arazoa eta albistea da herritarrek ezin dutelako ur edangarririk izan. Batzuetan izaten da ohiko hornidura-iturriak kutsatuta daudelako mehatze- edo petrolio-industrien eraginez; beste batzuetan, berriz, konpainia hornitzaileen lukurreriarengatik da —konpainiek, euren inperioak gero eta handiagoak egin nahian obsesionatuta, kontsumorako ezartzen dituzten tarifak ordainezinak baitira gizarteko sektore marjinatu handi batzuentzat—. Edo izan daiteke baita estatuek eurek ere ez dutelako onartzen beti ur edangarria izatea oinarritzko giza-eskubidea dela, eta horren ondorioz ordaindu dezaketen herritarrek bakarrik izan dezakete edateko ura.

Gogoratu behar da Hirugarren Munduko lurralde askotan gaixotasun masiboak eta hildako ugari eragiten dituzten germen patogenoak eta kutsadurak uraren bidez zabaltzen direla, haien eroale unibertsalena ura dela.

Era berean, hidrologikoki marjinatuta dauden herrialde pobreetan, lehorte aldietan ur-faltak oso eragin latzak izaten ditu. Herrialde horietako lehorteak, gure lehorteen aldean, denboran luzeagoak dira, garrantzi handiagokoak eta dramatikoagoak herritar guztientzat; eta ondorioak benetan katastrofe-mailara iristen dira: goseteak nagusi, desnutrizioa, edateko ur-falta, epidemiak eta gizaki-heriotzak. Konponbidea konplexua da; nazioarteko erkidegoari dagokio egoera zuzentzeko erabakiak hartzea, zoritxarrez ia dena diruz eta diruarengatik mugitzen den mundu honetan. Eta besteen zoritxarraren aurrean, uraren inguruko enpresa handiek interesik agertuz gero, ikusten duten negozio-aukeraren heinekoa baino ez da izango —beste hainbat enpresatan bezala—.

Mugez haraindiko erreken kasuetan —bi herrialde edo gehiago zeharkatzen dituztenean— eta baita sistema akuifero handien kasuetan ere —baldin eta bi herrialderen edo gehiagoren lurraldeetako lur azpitik hedatzen badira—, ura kudeatzerakoan iskanbilak izaten dira sarri, eta ez hainbeste urritasun-arazoengatik, baizik eta bizikidetzak eta ekitate-kulturarik ez dagoelako, eta gabezia horrek gidatzen duelako mundua.

V.- ZIBILIZAZIO-KRISIAREN MARKO OROKORRA

Ura eta errekek bezalako ondasun berezi baten kudeaketa ezingo da gizatasunez adimentsua eta moralki arduratsua izan, aurretik ez bada ulertzen zer nolako testuinguru kulturealean eta zibilizazioan mugitzen ari garen, eta zer nolako giza-ahultasunen menpe gabiltzan mundua gobernatzen; mundua eta, horren barne, ura eta errekek, gure arteko bizikidetza, ongizatearen esanahia eta gizatasuna bera.

Orokorrean, euren buruei "aurrerapeneko gizarte" deitzen dieten gizarteak hasiak dira dagoeneko errealitate zehatz bat jasaten alderdi ekonomikoan, Barne Produktu Gordinaren gutxitzean, sistema ustiatzaileen lehiakortasuna galtzean, langabezian eta abarretan; baina, nahiz eta gertakizun horiek itxuraz larriak izan, ez dira berez arazoa, baizik eta benetako funtsezko arazoa azaleratzeko era askoetariko bat. Izan ere, funtsezko arazoa honako hau besterik ez da: zibilizazioaren, nortasunaren eta giza-proiektuaren krisi sakona, orain jasaten ari garena, behea jo duen aurrerapen-eredu honetan, basakeriara itzularazteko prozesua bilakatu den eredu honetan.

Sarri izaten ditugu hizpide atmosferaren arazoa, aldaketa klimatikoaren arazoa, ura, energia, kutsadura, transgenikoak, baliabide batzuk agortzen doazela, gosea, indarkeria, eta abar. Hori guztia, funtsean, berba egiteko modu eufemistiko bat baino ez da; izan ere, benetako arazoa gu geu gara, gizakia bera; gudan dago gaitzaren jatorria, zuzendu beharreko desoreka larria. Beste guztiak horren ondorioak dira.

Ezagutu diren aurrerapen teknologikoak batez ere boterearen eta menperatzeko moduen zerbitzura egon dira; urte itxurako mundu bat sortu dute, baina erro-errotik gizagabetua, sinistu nahi duguna baino ezegonkorragoa, hauskorragoa. Batzuetan era nabarmenean, baina beti era sotilean, batez ere indarkeriazkoa den mundu bat, inolako kezkarik gabe jende pila baztertuta uzten duena. Harri-kartoizko mundu bat, oso egitura hauskorren gainean oinarritutakoa.

Bolborategi baten gainean bizi gara, edozein momentutan eztanda egin eta guztiok pikutara bidali gaitzakeena. Azken hamarkadetan, botere- eta dominazio-nahia xede zuten gutxiengo boteretsu batzuen atzetik joan gara, erosotasun-modu hutsaletan kulunkatuta; eta horrek urrunegi eraman gaitu, jakin gabe nora gindoazen, zeren truke, zein ondorio izango zuen epe laburrean, edo zein izango zen ordaindu behar genuen prezioa. Noragabeko ihesaldi honetan, benetako funtsezko arazoa zegoen tokira begiratu beharrean beste aldera begiratuta, gure burua engainatu dugu bai pertsona moduan, bai kolektibo moduan. Eta horretan jarraitzen dugu.

Gaur egun arazoa txikiagotzen saiatzen ari gara, dena krisialdi ekonomiko huts bat balitz bezala, pasatuko den krisi bat bezala, besterik gabe; baina benetan jasaten ari garena sistemaren klimaterioa da, behea jo dugu. Sistemak dagoeneko eman du eman zezakeen guztia. Gaur egungo ondorioek —hamarkadetan zehar sistema indarraldian egotetik datozenek— behartu egiten dute nahitaez sistema aldatzera.

Aurrerapen batzuk miresgarriak izan dira, txalotzea bakarrik merezi izango luketenak, guzti-guztionez eta beste prezio batean izan balira. Arlo hauetako aurrerapenak, esaterako: elikadura, osasuna, mina kontrolatzea, hezkuntza, duintasunik gabeko asto-lanak desagertzea, lan-jardunaren iraupena mugatzea, eta abar; bistan da horien ondorioak onerako izan direla. Baina, gauza guztiekin gertatzen den moduan, atalase edo maila batetik aurrera ondorio positibo horiek geure kontra egiten hasten dira, sistema diseinatu dugunon kontra; hori da Migel DELIBESek "kulatala-kolpea" deitzen zuena, akzio/erreakzio printzipioa.

Urarekin eta errekekin gertatzen ari dena errealitate horren adierazpena besterik ez da, baina hidrologiako eta ingurumeneko bertsioan. Beraz, errealitatea bera da, neurririk gabeko eta erro-errotik gizagabetutako aurrerapenaren izenean bizi dugun bandalismoa, gutxiengo batzuek boterea biltzeko duten neurririk gabeko nahiak eta diru-goseak gidatuta; horrenbestez, uraren arazoak —gaur egun ditugun arazo gehienekin gertatzen den bezala— ez du izaera hidrologikoa, kulturala baizik: neurritasun-falta, gizakiaren beraren balioen krisia, eta gainera planeta-mailan. Eta hori guztia honako garai hauetan, gizadiak beste era batean antolatzea beharrezkoa duenean, gizadia bera zer den kontuan hartuta, hau da, izaki oso oso antzekoek osatzen duten familia handia; gauza berengatik barre eta negar egiten duten izakiak, handitasun potentzial berberak eta miseria erreal berberak ere dituzten izakiak, harmonia- eta funtzionamendu-arau jakin batzuk dituen toki berean bizi, elikatu, disfrutatu eta sufritzen dutenak.

Hala ere, oraindik ere jarraitzen diogu gutxiengo batzuen diru-goseari; gutxiengo boteretsuak baina gizatasun aldetik primitiboak eta heldugabeak, indartsunaren legea ezarri dutenak, ahalik eta botere gehiago bildu nahian, gizadi osoa hipermegaenpresa modukoren bat bilakatu nahian: LA TIERRA S.A.

VI.- GURE ARAZOAK URAREKIKO

Uraren arazoa Estatuan gezurrezko arazoa da, alegiazko arazoa; arazo hori agintean aldiro daudenekin bat egiten duen sektore minoritario baten neurrigabeko nahiengatik sortu da, agintean daudenei ahaztu egin baitzaie gobernatzea jakinduriaz administratzea dela.

Gertatzen dena da gure gizarteak ez dituela arazotzat jotzen egiazko arazoak: erreka gehienen erregimen naturala urtegi handiek disfuncionatu dute; ur-goraldi ongileak laminatuta daude; antzina ibaiertzetan zeuden baso handiak botata daude; uholde-lautadak behar ez den bezala okupatu dira eta uholdeak jasateko arriskua dute (denok ordaintzen ditugu uholde horien ondorioak); ibaiertzak lagata daude; presek gure erreketako emari solidoaren ekarria eusten dute itsasora iritsi aurretik; hondartza askotako oreka desegin denez obrak beharrezkoak dira harea mantentzeko; errekek udan lehortu egiten dira sostengaezinak diren laborantza ureztatuak mantentzeko erreken emakidei ura kentzen zaielako, eta, hala ere, urtegi berriak eraiki nahi dira errekei ur gehiago kendu eta laborantza ureztatuak gehitzeko, berriz ere zikloari hasiera emanez.

Gizarteak ez ditu arazotzat jotzen ondoko egoerak: ia erreka guztietan bainatzeko beldurra izatea; dena kutsatuta egotea; arrantza profesionala debekatuta egotea osasun-arazoengatik; sasoi bateko Pirinioetako erreka handiak argindar-fabrika pribatuak izatea, ur-bideak hilda egotea, urtegi handiz josita, gune naturalak desnaturalizatuta eta pribatizatuta egotea, eta ia erreka guztietan ur-emari handiak bat-batean askatzen direlako erreka ondoan egotea arriskutsua dela esaten duten kartelak ikustea.

Gizarteak ez ditu arazotzat jotzen ezta honako hauek ere: Tajo ibaia hilotz hidrologikoa izatea; Arribes del Duero-ren lehengo handitasuna gaur egun uraren ibilirik gabe hildako gunea izatea; Miño, Sil, Navia, Sella eta Nalon ibaiei gauza bera gertatu izana, beste ibai asko bezala, betirako esku pribatuetan egongo den ekoizpen hidroelektrikoaren aparatu bilakatu baitira, edertasuna eta gozamen ludikoa guztiz baztertuta.

Halaber, gizarteak ez du arazo kontsideratzen plan hidrologikoak aurrera eramateko beharrezkoak diren inbertsioak herritarrek ordaindu behar izatea, plan horiek urarekiko nahi pribatuak asetzeko eta ura eta kontzesioak banatzeko baino ez direnean, eta dagoeneko legeez ere onuradunak ordaindu beharko lituzkeenean. Gizarteak ez du arazo kontsideratzen herritarrek ordaintzen jarraitu behar izatea obra hidrauliko handi gehienetan sortzen diren kostu-desbideraketa handiak.

Gizarteak ez du arazo kontsideratzen 1.300 urtegi gutxi izatea "gizartearen ur-eskaria" moduan ezagutzen dena asetzeko; izan ere, eskariak ez dauka zentzurik ez bada zehazten urarengatik ordaintzeko prestasunik; bestela, eskariak ez du inoiz asebetetze-mugarik izango, eta nahia urtez urte handitzen joango denez egitura-defizitak ere gero eta handiagoak izango dira. Eta azkenean ez da egongo ezer banatzeko.

Beste sektore batzuetan egin den moduan, dagoeneko eginda egon beharko litzateke laborantza ureztatuen birmoldaketa, ez baita bidezkoa hain jasangaitza den sistema mantentzen eta elikatzen jarraitzea; ureztatze-sistemak gure uraren % 85 kontsumitzen baitu eta, gainera, urtegi berriak justifikatzeko aitzakia emozionala da. Gizarteak ez du arazo kontsideratzen plan hidrologikoak gastu publiko handia banatzeko planak izatea, obrak eta uraren kontzesio-eskubideak banatzekoak, hain zuzen ere; eta ez, aurrekoak izan beharrean, errekek babesteko, degradazioa gelditzeko, kontzesioak berreskuratzeko eta erabilera-banaketa berriak egiteko planak izatea; azken finean urtegi eta isuraldaketa berriak, erreken degradazio berriak saihesteko.

Gizarteak ez du perbertsio-arazotzat hartzen herritarrek ordaindu behar izatea planifikatzailearen hutsegite sistematikoak eta horien ondorioz sortutako aurrekontuen desbideratze kroniko eta eskandalagarriak. Gizartearentzat ez da arazo Legea ez betearaztea, informazioa iluna eta zaila izatea, politikari ofizialek sistematikoki Uraren Esparru Zuzentarauaren arloan iruzur egiteko ahaleginak egitea, eta Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioak sarritan tramite hutsak izatea.

Gizartearentzat ez da arazo erreken emari ekologikotzat jotzea agorraldi-sasoiko emaria, gainontzeko % 90 "soberan dagoen emari moduan" sailkatzeko eta merkatuaren esku jartzeko. Gizarteak ez du arazo kontsideratzen Administrazioak Tajo ibaiko beste isuraldaketa handi bat bultzatzea eta Ebro ibaikoak berriz zabaltzea. Gizarteak ez du arazo kontsideratzen, besteak beste, Biscarreus-eko urtegia dela eta, Murillo inguruan Gallego-ko gunea urpean lagatzea, gunea horretan ur lasterretako/amiletako enpresek urtero ehun mila zerbitzu baino gehiago eskaintzen dituztenean.

Gizarteak ez ditu arazotzat jotzen ezta honako hauek ere: Turia ibaia dagoeneko Valentziatik ez pasatzea; Guadalquivir ibaia Sevillatik ez pasatzea; Segura ibaiaren azken herena txerritoki bilakatuta egotea eta

itsasora iristen dena ura izan beharrean zikinkeria kontzentratua izatea; Jucar ibaia urteko egun erdietan itsasora ez iritea; Tablas de Daimiel garai batean izan zenaren irudia ere ez izatea; Ojos del Guadiana edo Mancha Verde delakoaren eremugune zaharra ia desagertuta egotea; edo Antela urmaela desagertuta egotea. Eta Estatuaren holokausto hidrologiko honetan, gizarteak ez du arazo kontsideratzen plan hidrologikoak diru publikoa banatzeko eta Estatuako ondasun hidrologikoa pribatizatzeke planak izaten jarraitzea. Gizarteak ez du arazotzat jotzen ibaietako balio naturalen ardura duten agintariak, orokorrean, inolako ezagupen espezifikorik edo sentsibilitaterik ez duten pertsonak izatea, eta balio horiek defendatzeko urtetan zehar ahaleginak egin dituzten sektoreei inolako kontsultarik ez egitea.

Eta ez ditu arazotzat hartzen honako hauek ere: Espainiako ondare hidrologikotik gelditzen ari den apurra hondatzeko zorian jarraitzea; emakidak ez berraztertzea; 1915. urteko Goi Aragoiko Ureztaketei buruzko Legea eta horren bezalako batzuk ez gaurkotzea; eta gobernu bat ere ez ausartzea ureztatze-sistemaren birmoldaketa aurrera eramatera, ureztatutako azalera murriztera, beste guztioi toki guztietatik murrizketak egin dizkiguten moduan. Lotsagarria da, gaur egun dugun panorama ikusita, oraindik Aragoiko Uraren Itunaren obrak egiteko eskatzen eta egingo direla eskaintzen ibiltzea; urteko 50.000 milioi euroren pareko inbertsioa litzateke, gutxi batzuen onurarako, eta gainera etorkizunik ikusten ez zaionean, ez bada behintzat etorkizunean Ebrotik isuraldaketa egin ahal izateko bidea prestatzen joatea Mediterraneoko kostaldeko negozioetarako, betiere beste erreka batzuen degradazioan urrats bat gehiago emanez.

VII.- ZALDI GAINETIK JAUSI NINTZENEOA

1994ko udan Frantziako enpresa batek eskaintzen zuen abentura-bidaletako batean eman nuen izena. Bi astean zehar Kanadako erreka "basati" bat jaitsi behar genuen, lehengo tranperoek, ehiztari profesionalak eta larru-saltzaileek erabiltzen zituzten bi plazako kanoetan. Eta "basatia" esan dut egin genituen 400 Km baino gehiagotan ez genuelako hiririk, herririk, biztanle-gunerik, erreperiderik, zubirik edo trenbiderik zeharkatu.

Sei pertsona eta gidaria ginen, lau kanoa guztira. Errekaren zati batzuk lasaia ziren, laku askotarako sarrerak eta irteerak zituen eta baita ur-

lasterrak ere. Bakar-bakarrik zailtasunak III. maila gainditzen zuenean ontziak, tresneria eta jakiak hartu eta arrastaka garraiatzen genituen taiga borealetik zehar, konifera eta urki handiz betetako baso-masa ikaragarri hartatik zehar.

Egun haietan umetan eta nerabezaroan errekan sentitutako emozioa bizi izan nuen berriz ere. Garai hartako beste ume askoren moduan, bizitasun handiz bizi izan nuen erreken magia, ur garbiak zituzten eta nahiko natural mantentzen ziren erreken magia; errekan bainatzen ginen eta egun osoa ematen genuen bertan, esploratzaile txiki ginen aldetik irudimena aska lagata; kamioien gurpilen ganberetan joaten ginen errekan behera, beheko aldean ontziaren zorua osatzen zuten oholak lotu ondoren.

Neoprenorik, hotzaren aurkako txapinik, salbamendu-jakarik eta uretan noizbehinka ematen genituen iraulaldietatik babestuko gintuen kaskorik ez zegoen garai hartan, geure kabuz asmatu genuen, oharkabe, geroago *rafting* izenarekin ezagutuko zena. Karramarroak harrapatzen genituen, urertzean brasan erre ondoren jateko edo etxera eramateko.

Errazionamenduaren urteak ziren eta urrun zeuden geroago ezagutu ditugun oparotasuna eta xahutzea. Ume argalak ginen; garai hartako umeen artean ez zegoen obesitaterik; gaur egun, berriz, % 19raino iritsia da. Gutxi genuen arren, uste dut ez genuela gaur egungo umeek baino zoriontasun gutxiago; natura genuen eta ez genuen antsietatea ezagutzen.

Kanadako esperientziari esker konturatu nintzen, hidrologia arloko zientzialari moduan 30 urte baino gehiagoz jardun arren, erreketara hurbildu eta pertsona gisa aberastu beharrean, paradoxikoa bazen ere, erreketatik urrundu nintzela eta errekarri buruz nuen ikuspegia lehenago nuena baino pobreagoa zela; konturatu nintzen errekek mundu hotz eta inpersonala zirela niretzat eta datuetara mugatzen nuela erreken ikuspegia: aforo-datuen zerrenda luzeak; hidrogramak; datu horien deskonposaketak, momentu oro jakiteko emariaren zein portzentaje datorren lur-azaletik eta zein portzentaje lur-azpitik; agortze-kurbak, aurreikusi ahal izateko zein izango den erre karen emaria x egun euririk egin gabe pasatu ondoren; taulak, adierazteko zenbatekoa izan zitekeen emaria urte normaletan, lehorretan edo oso lehorretan; formula-saiakerak, jakiteko zein prezipitazio-kopuru bihurtzen den erreketako emari; uraren abiaduraren neurketak; birgertatze-aldietako uholdeak aurretik zehaztuta; uraren konposizio kimikoaren aldaketaren urteetako tipifikazioa eta aldaketaren zergatia, etab.

Bat-batean ulertu nuen errekei buruz nuen ezagutza zientifiko guztia askoz ere konplexuagoa eta zabalagoa den errealtatea aztertzeko modu murrizta zela; sotilki bada ere, ustiaketara bideratutako ikuspegitik begiratzen eta sentitzen nituela errekek, aspalditik, neurriz kanpoko zen ustiaketara bideratutako ikuspegitik.

Uleratu nuen ezagutza hotz eta kalkulatzailerik horrek guztiak arima zuela faltan, dimentsio holistikoa zuela faltan. Ikuspegi integratzailea falta zen; errekek bizidun anitz eta naturaren beste oreka asko gordetzen eta mantentzen dituen ekosistema bat baino zerbait gehiago dira, dimentsio humanistikoa ere kontuan hartu behar baita: erreka zer den, erreka esanahia, irudikatzen duena, oroitarazten duena, memoriaren eta historiaren ondarea, bakearen, edertasunaren eta ulermenaren gunea.

Benetan zoriontsu izan nintzen Kanadan igaro nituen egun haietan. Zaragozara itzuli nintzenean motxila emozioz eta ideia eta argi berriz beteta ekarri nuen, zerbait berezia aurkitu nueneko sentsazioa nuen. Beharbada zerbait hori, lehenagotik ere, nire barruan zegoen eta bizitzari modu garbiagoan begiratzen genion garaiko oroipena zen; behar bada, eta nik jakin gabe, erreka guretzat den-dena izan zeneko umetako eta nerabezaroko garaiak, uda osoa goizetik iluntzera arte errekan eta erreka-ertzean pasatzen genuen garaiak, hotzak edo euriak erreka-joatea eragozten zigutelako tristatuta igarotzen genuen garaiak uzte baino gehiago markatu zidan.

Urte haietako udazken amaierako, neguko eta udaberriko hilabeteak erreka itzultzeko zain igaro genituen egunak izan balira moduan gogoratzen dut, erreka izan baitzen gure haurtzaroko mundua, igande eta jaiegunetan helduekin eta familiekin partekatzen genuena. Erreka, garai hartan, bizitzaren elementu sozializatzailea zen.

Niretzat Kanadako esperientzia San Pablorentzat zaldiko erortze famatua bezain onuragarria izan zen, biziberrialdia ekarri zidan errekekiko, nire buruarekiko (nola sentitzen nintzen eta besteak nola sentitzen nituen) eta naturarekin erlazionatzeko moduarekiko, betiere urak eskaintzen digun ulermen berezitik abiatuta. Bat-batean errekei modu osagarri eta aberasgarrian begiratu nien, baliabide moduan eskaintzen digutena eta naturaren eta biziaren orekan eskaintzen dutena kontuan izanik.

Uleritu nuen errekek direla emozioak, askatasun-mezu sakonak, biziaren adierazpen sinbolikoa eta aisialdirako eta laket metafisikorako eskaintza; ulertu nuen eder-ederrak izateaz gain, azelerazio patologikoaren garaian bizitzaren erritmo lasaiarekin topo egiteko gune bereziak direla; ulertu nuen erreka guztiek eskaintzen digutela irakaskuntza metafisikoa; ulertu nuen isiltasunean entzundako erreken murmurioa gozamenerako musika naturala dela, infinituarekiko elkarrizketa eta arimaren isiltasuna. Bizia mila modu elkarreragiletan adierazten da hain eszenatoki berezia diren erreketan, eta konturatu nintzen zenbait hamarkadatik hona errekei bizkarra emanda bizi garela, errekek ezagutzeko eta erreketako urarekin batera bidaiatuz errekek bertatik gozatzeko baliabideak ditugun garai honetan gainera.

Banekien gauza horiek guztiak ez direla hidrologia zientifikoan aipatzen, sotilki bada ere erreken ustiaketari aplikatutako ezagutza mertzenario bilakatu den hidrologia zientifikoan; kontuan izan behar dugu ustiaketa, txarto deituta bada ere, aurrerapen izenarekin ezagutzen dugunaren mesedetan egiten dela eta batzuk onura izugarria ateratzen dutela hortik, errekek bereganatzen dituztelako, kontuan izan gabe Lurraren, biziaren eta gizakiaren ondare direla eta inork ezin dituela ez saldu ez erosi. Konturatu nintzen Hidrologia ezagutza mertzenariorantz desbideratzen ari zela, errekei etekin gehiago ateratzeko modu berriak justifikatzen dituen ezagutza mertzenariorantz.

VIII.- FLUBIOZORIENTASUNAREN ESPERIENTZIA

Kanadatik itzuli nintzenean han aurkitutakoaz gozatzen hasi nintzen; bi piragua erosi nituen, bizi nuen emozioa lagunen batekin partekatu ahal izateko. Handik gutxira erabaki nuen errekekiko esperientzia emozional eta ludiko hura hidrologiaren irakaskuntzan txertatzea, ikasleei errekarri buruzko ulermen sakonagoa eskainiko zien praktika bat gehiago izango balitz moduan. Laster hasi nintzen zenbait eguneko iraupena zuten erreka-jaitsierak antolatzen taldeentzat, oporretan eta aste bukaeretan. Normalean Ebro ibaiaren beheko aldera joaten ginen, ibaiaren azken 125 Km-etara, Flix izeneko azkeneko presa handiaren eta itsasoaren arteko zatira.

Beti gauza bera gertatzen zen: bizipena amaitutakoan jendea oso pozik egoten zen; bazirudien errekan dimentsio eta espazio bereziak aurkitzen zituztela, ongizatezko mundu bat eta beste pertsona batzuekin elkartzeko aukera berezi bat. Sentsazio hori behin eta berriaz ematen zen, partaideen adina, kultura-baldintzak eta jatorria edozein izanda ere. 2002. urtean

flubiozoriontasuna deitu nion sentsazio horri. Eta izen sinpatiko eta iradokitzaile horrekin gelditu da harrezkero.

Hamar urte baino gehiago daramatzat era horretako esperientziak antolatzen lagunentzat eta lagunak lagunentzat. Ehunka gara dagoeneko topaketa flubiozoriontsuren bat partekatu eta bizi izan dugunok, Estatuko toki guztietako pertsonak eta baita Europa, Afrika eta Latinoamerikakoak ere.

Momentu batean fenomeno flubiozoriontsuari buruz, gure topaketa guztietan sortzen zen ongizate horri buruz pentsatzeko beharra sentitu nuen; izan ere, ongizate hori partaide guztiek sentitzen zuten, nahiz eta aurretik ez bizi nik umetan eta nerabezaroan —eta heldutasunean berriz— bizi izandakoak.

Gaur egun ulertzen dut faktore eta arrazoi ugari direla fenomeno hori ahalbidetzen dutenak. Horietako bat, zalantzarik gabe, honako hau da: gure bizitzan, kulturen eta emozioetan zeresan handia izan duten errekei bizkarra emanda bizi izan garen arren hamarkada askotan, errekek gure baitan daude; urarekin, uraren sinbolismoarekin, uraren magiarekin eta uraren ibiliarekin dugun harremana kode genetikoaren bidez transmititzen da, amaren sabelean dagoen umeari musika, erritmo- eta harmonia-adierazpen gisa, transmititzen zaion moduan, musika zer den jakin gabe poztu egiten baita umea eta irribarre egiten baitu. Errekatik begiratuta, erreka-ertzeko bizitzak, lertxunen, lertxuntxo zurien eta ubarroien hegaldi dotore eta guzti, lurreko paradisuaren mitoan eta gizakia harmonian integratuta egotearen irudian pentsarazten digu.

Errekarekin bat eginik arraunean patxadan ibiltzean, presa kroniko eta etenik gabeko azelerazio bilakatuta galduta dugun lasaitasuna berreskuratzen dugu. Arraunean ari garen bitartean egunetik ilunabarrera argia eta islak nola aldatzen diren ikusten dugu, askatasun osoz bainatzen gara, ez dugu motorren zaratarik entzuten, moduren batean estralurtarra den bizi-espazioan gaudeneko sentsazioa izaten dugu, ordura arte bakarrik ibaiertzetatik edo zubietatik ikusi ahal izan dugun espazioan; abentura partekatzean giza-ibaia eratzen dugunok, pertsona moduan begiratzen diogu elkarri, eta ez dugu inolako lotsarik izaten ohiko bizitzan, sarritan, blokeatuta izaten ditugun samurtasuna eta gozotasuna adierazteko. Giro magikoaren baitan dago hori dena, gizakiaren handitasuna sentitzen dugu, dimentsio emozionalaren baitan gizakiak gordetzen duen ahalmen infinitua. Kuriosoena da emozio hori gehienentzat ez dela errekan amaitzen; izan ere, flubioabenturen artean, abentura handiagoan —bizitzan- aurrera egiteko konplizitate-egoera gozoa sortzen da. Aipatutako konplizitate horregatik nago ni gaur hemen.

Giza fenomeno horri buruz hitz egin behar dugunean *flubioa* deitzen diogu modu laburragoan. Flubioa, gaur egun, dagoeneko giza-ekimen txiki bat da, aldatu beharra duen gizarte-errealitate menperatzailearen aurreko erreakzioa; maila pertsonalean eta talde-mailan ezarri daitekeen filosofia da, barrutik bizi izandako ibaien eszenatokitik gizatasuna eta gizatasunaren gaur egungo egoera ulertzen laguntzen diguna; gaur egungo egoera hori gizakiok bizi dugun krisi kultural sakona baino ez da, hamarkadatan “aurrerapena” deitu dugunaren inguruan eta horren zurigarrien inguruan sortutako dinamika eta exijentzien menpe egoteagatik bizi dugun egoera; aurrerapen—eredu horrek, hain zuzen, aurrerapena bera baino ez du xedetzat, ez dago gizakiaren garapenaren alde, baizik eta gizarteko sektore gutxi batzuen interesen alde.

Uraren zientzialari naizen aldetik, uste dut flubioaren esperientzia hidrologia aplikatuaren ariketa bat dela, hidrologia akademikoaren eta numerikoaren ezagutza hedatu eta osatzen duena; liburuetan ez datorren hidrologia kualitatiboa eta humanistikoa.

Flubioa gaur egun beharrezkoak diren eta eskura ditugun aukeretako bat da, harea-aletxo bat gehiago, gizarte berri bat eraikitzeko eta gizarte horretatik gizaki berri bat sortzeko denok ezinbestean egin behar dugun ahaleaginean; gaur egun dugun gizartea, “ongizatearen gizartea” deitzen duguna, hondoratzen ari baita.

Txarto esanda ere aurrerapen modura ezagutzen dugun hau mugarik gabeko hazkundean oinarritzen da; aurrerapena bera baino ez du xedetzat eta ez du inolako helmugarik, badirudi aurrerantz ihes egiten duela, aurrez ezarritako muga material edo moralik gabe. Horri guztiari esker, gaur egungo gizaki prototipoa gizaki zikiratu, manipulatu, ergeldu eta kontsumista da, eta gizaki horren etorkizuna, bidegabeko lehiaren testuinguruan, diru-goseagatik mugitzen den klase boteretsu gutxi batzuen esku baino ez dago; ezin ahaztu gainera, gero eta desberdintasun iraingarri nabarmenagoak daudela gizakien artean eta desberdintasun horiengatik elkarren segidako biolentzia-eklosioak eman daitezkeela, imajina ezin daitekeen basakeria eta ankerkeria, gizakien arteko borrokak, luzaroan gordeta egon diren gorrotoak eta duintasun minduak azaleratuko dituztenak.

Gaur egungo aurrerapen-sistemak erraztu eta elikatu duen marjinazio-munduaz gain —askorentzat dagoeneko larria izatetik zeharo jasanezina izatera pasatu dena, giza duintasunarekin bateraezina—, ongizatearen gizarte haietan ere oro ez da urre. Nagusitzen ari dira bakardadea, segurtasun-eza, etorkizunaren aurrean hutsunea ikustea (ez bakarrik etorkizuneko belaunaldien edota gure seme-alaben etorkizunaren aurrean,

baita hurbilen dugun geure etorkizunaren aurrean ere); depresioak, neurosiak, jendea lanik eta etxerik gabe dago, eta epe motzean lana aurkitzeko esperantzarik gabe, ehunka gazte etorkizunik gabe dago.

Pertsona asko maitasunik gabe bizi dira, bizitzari aurre egiteko baliabiderik gabe, hilerio honakoak ordaintzera behartuta: etxearen alokairua edo hipoteka, kotxearen letrak, argiaren, uraren, gasaren, jabekideen eta zabor-bilketaren erreziboak, seme-alaben ikastetxeko jangelaren erreziboa, garraioa, berogailua, zergak... eta ezin ahaztu janztea eta jatea ere ezinbestekoak direla. Zein irteera aurki diezaiokegu horri guztiari? Hipokresiarekin aurrera jarraitu eta ongizatearen gizartea deitzen jarraituko diogu? Zer da ongizatea?

Urre itxurako gure gizarte hauetan, pertsona asko —behar materialak beteta dituzten arren— bakardadean bizi dira, besteen maitasunik eta berotasunik gabe, gizatasunik eta aurpegirik gabeko gizartean, taldean bizi diren bakartiak dira; isilean desesperatuta dauden pertsonak, ahaztutako edadetuak, etab. Norbanakoari egunero aurrera egiteak kezkatzen dion bitartean, nahi eta premia propioak ase nahian dabilen bitartean, gizadiak orotara ez du inolako proiektu global itxaropentsurik, ordena pixka bat jarri eta mundua aldatzen lagunduko dion proiekturik.



Flubioaren esperientziaz eta gizatasunez erreketan bizi izandako topaketak gizatasun-eskolak dira, errekaen magiak ahalbidetzen dituenak. Ez dituzte munduko arazoak konponduko baina giza berotasunez beteta dauden gune txiki ugarietako bat dira eta irekita daude ezagutu nahi dituztenentzat. Gizartetik bertatik sortu behar dira era horretako guneak, gururik gabe, egiturarik gabe eta doktrinarik gabe, talde-mailan, berriz ere, biziari gizatasuna emateko eta inteligentzia esnarazteko, basakeriari aurrerapen ez deitzeko.

Aldaketaren alternatiba ordenamendu berri batetik pasatu behar da, mundu-mailan onartuak izango diren eta bizitzari eta elkarbizitzari eragingo dieten printzipio moraletan oinarrituko den ordenamenduan; ez dago esan beharrik printzipio horiek ez dutela zerikusirik izango orain arte jarraitutakoekin. Ez dago bestelako erantzunik; orain dela milaka urte, lehenengo kulturak eta filosofoak sortu zirenetik ezagutzen duguna baino ez dago!

Gizakiari kezka gutxiago sortu beharko lioke materialki hazteak eta gehiago elkarbizitzaren eta ongizatearen sekretuak milagarren aldiz ikasteak eta aurkitzeak; sekretu horiek ez daude kanpoan, gizakiaren baitan daude, emozioen mundu aberats eta neurtezinean, eta elkarbizitzaren eta espirituaren baloreetan; moderazioaren bidez diru-gosea kontrolatzen ikasi beharko luke eta lankidetzaren, errukiaren, senidetasunaren, sentiberatasunaren eta zintzotasunaren moduko baloreak goraipatu beharko lituzke.

Gauzak horrela izanik, orain dela hamar urtetik hona garatzen eta suspertzen ari garen *flubioa* udaran egun batzuetan ondo pasatzeko toki orijinal bat baino zerbait gehiago da; dibertimendua eta alaitasuna flubioaren esentziaren alderdi bere-berezkoak eta utziezinak badira ere, alaitasuna sortzeko lehenengo gure baitan sentitu behar dugu; berrikuntzarako mezu humanistikoak hidrologia ludikoki erabiltzen du, natura eta balore metafisikoak erabiltzen ditu bizitzaren filosofia berri batera hurbiltzeko baina, horrez gain, beste hainbat frontetan ere lan egin behar da, bakoitzaren idiosinkrasiara egokituz, ongizateak benetan esan nahi duenari begiak, besoak eta ateak ireki ahal izateko.

Esperientzia pertsonaletik eta gogo-esperientziatik abiatua ulertu eta onartu behar dugu zein mailatan eta zein modutan garen bizi dugun egoeraren konplize eta beharrezkoa den birsorkuntza-“gurutzadaren” arduradun.

Horrela ulertuta, *flubioa* gizatasuna ikasteko gunetik bat da, eta interesa duen edonork har dezake parte noizbehinka gure bizitzak gizatiartzeko egiten ditugun topaketetan. Mugimendu horren eszenatokia, hari eroalea eta hasierako motorra erreka da. Errekaren eta gizakiaren arimaren arteko lotura emozional sakona bitarteko, galduta edo gutxituta zeuden zenbait balio salbatuko ditugu, mundu desberdin eta hobe baten oinarri kontzeptualak ezartzeko beharrezkoak direnak.

“Un río es algo que tiene una fuerte y marcada personalidad, es algo con fisionomía y vida propias. Uno de mis más vivos deseos es llegar a seguir el curso de nuestros grandes ríos: el Duero, el Miño, el Tago, el Guadiana, el Guadalquivir, el Ebro. Se les siente vivir. Cogerlos desde su más tierna infancia, desde su cuna, por sus angosturas y hoces, por vegas y riberas. La vena de agua es para ellos algo así como la conciencia para nosotros. El agua es, en efecto, la conciencia del paisaje. Donde hay agua parece el paisaje vivo. El agua del río es conciencia viviente” (Miguel de UNAMUNO)

Gure flubiobizipenak bihotz-zabaltasunez eta samurtasunez betetako tsunami baten modukoak dira, eta besoak eta bihotzak elkarrengan zabaltzen ditugunean askatu egiten ditugu, gure existentzia opari bat dela konturatuta, errekaren ibiliak eta ibili horretan sortzen den guztiak sentiarazten digun oparia. Gizakiak antzinatik sasoi eta kultura guztietan zehar urarekin eta errekekin izan duen lotura emozionalak egiten du posible emozio horiek guztiak sortzea eta askatzea.

IX.- URAREN KULTURA BERRIA

Ulertu behar dugu urak botere-tresna izaten jarraitzen duen heinean, eta negozioak edo dirua sortzen dituen bitartean, gizakiaren ur-nahia ez dela inoiz aseko eta gure patuak basakeria izaten jarraituko duela. Prozesu horri amaiera emateko modu bakarra errespetuaren kultura berri bat ezartzea izango litzateke, uraren kultura berri bat; naturarentzat eta gizakiarentzat urak zer esan nahi duen ikusteko, ulertzeko eta sentitzeko gai izango litzatekeen kultura.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren erdi aldera, Kanadako errekan bizi izandako esperientziaren ondoren, eta uraren arazoaren giza alderdia, jokoan dauden sasi-interesak, pertsona askoren dramak, demokraziaren

kontzeptu faltsua, ingurumen-erakundeen gezurra (oiloak zaintzen dituzten azeriak dira) eta Orwellen hizkuntza hidrologikoaren tranpa ezagutu ondoren, *Uraren Kultura Berria* izena eman nion nire ustez gauzak ondo egiteko ezarri behar den oinarri-multzoari, eta gizarteak uler zezakeen diskurtsoari.

Diskurtso honetan zehar aipatu dudan errealitate hirukoitza onartu beharra daukagu. Gaia zuhertasunez aztertu eta uraren kudeaketa arduratsura iritsi beharrean gaude, gaur egun oraindik ere planifikazio hidrologikoaren oinarri den hondamen ezjakin eta bandalikoaren dinamika baztertze.

Lehenik eta behin ura bizia mantentzen duen elementua da eta ezinbestekoa da naturan oreka mantentzeko. Hori nahikoa izan beharko litzateke gizakiaren ur-nahia mugatzeko. Miguel DELIBESek orain dela berrogei urte, Akademian sartzera egin zuen diskurtsoan honako hau esan zuen gizakiaren esku-hartzeei buruz: “en la naturaleza ocurre como en botica, que sabemos lo que quitamos, pero no siempre lo que metemos”.

Bigarrenkoz kontuan izan behar dugu gizakiak ura behar duela bizitzeko eta ekoizpen-sistemak, nahiak eta konfort-erak mantentzeko. Ura eta errekak beharrezko dugun ondasunaren baliabide preziatua dira, ordezkaezinak eta estrategikoak eta horien ustiaketak luraren ekosistema naturalaren orekan disfuntzio saihestezina sortzen du. Arazoa, beste zenbaitetan gertatzen den moduan, dosian dago, erabilera eta gehiegizko erabileraren arteko mugan, beharraren eta nahiaren arteko bereizketan. Aspirina bat zerbait arrotza da giza gorputzarentzat baina, hala ere, onuragarria da eta dituen ondorioak hutsalak edo antzemandekin edo onargarriak dira momentuan; aspirina-kaxa bat berriz hilgarria da.

Ura ondasun bat da, baliabide moduan berriztagarria baina Lurreko gauza guztiak bezala mugatua; teknologiari esker kopuru handietan gorde, potabilizatu, depuratu, berrerabili, birziklatu eta gatzgabetu daiteke. Erabilera batzuetan kontsumitzekoa da, beste batzuetan berriz ez; eta hidrologia- eta ekoizpen-testuinguru bakoitzean horien arteko proportzio egokia mantendu behar da. Sarritan, gehiegi erabiltzen dugun eta alperrik gastatzen dugun ondasuna da; horrez gain, behin baino gehiagotan, lurraldearen aukera hidrologikoarekin bat ez datorren erabilera ere ematen diogu eta horrek desordenak sortzen ditu; eta desordena horiek beste desordena batzuk sorraraziko dituzte, zentzugabekeriara iritsi arte.

Hirugarrengeoz, bihotzarekin ulertu behar dugu ura eta errekek kulturaren, memoriaren, nortasunaren, edertasunaren, ongizate naturalaren eta eskaintza ludikoaren ondare direla eta gizakiaren psikearekin duten lotura emozional eta sinboliko sakonagatik ezin direla hartu ustiatzeko baliabidetzat besterik gabe; errespetu-arauak ezarri behar dira, etorkizuneko belaunaldien eskubide sakratuen aurrean.

Laburbilduz, eta eguneroko errealtateari dagokionez, esango nuke ingurumenarekin, ekonomiarekin eta kulturarekin zerikusia duten arrazoiengatik, erreketan eta akuiferoetan orain arte aurrera eramaten ari garen esku-hartzeak gelditu egin beharko genituzkeela. Dagoeneko hondoa jo duen eta eman zitekeena emana duen aurrerapen faltsu eta suntsitzailearen izenean egiten ditugunak gelditu egin beharko genituzke: ezin dugu diru publikoa alperrik gastatu beharrezkoak ez diren eta zuzendu behar diren jardueretan, are gutxiago gaur egungo egoeran; ezin dugu ezinbesteko ondasuna den ura pribatizatu; ezin dugu jarraitu errekek suntsitzen; ezin dugu jarraitu jendea erreketatik bidaltzen; ezin dugu jarraitu erreken lurraldeak urpean lagatzen; ezin dugu jarraitu ilusioei eraso egiten.

Gure erreketatik oraindik nolabaiteko ahalmen oroitarazlea mantentzen duten zati batzuek —gaur egun erreka hutsak izanda, besterik gabe— dagoeneko etorkizuneko belaunaldien ondare ukiezina dira, orainaren eta etorkizunaren arteko harmoniaren eta edertasunaren eskaintza. Gizakiak, nahiz eta ez izan beti oso kontziente, gutxieneko edertasun naturala duen eszenatokia behar du bizi izateko. Milaka pertsona mugitzen dira aste bukaera guztietan, euren kotxeetan, eszenatoki horren bila, arimarik ez duten hirietako artifizialtasunetik ihesi.

Errealitate hidrologikoa ulertzeko modu berri horri Uraren Kultura Berria deitu nion. Kultura hitzak berak adierazten duen heinean gizakiak harreman emozionala duela gauzekin eta denborarekin, iraganarekin eta etorkizunarekin, bizia ulertzeko eta sentitzeko moduarekin. Bizia ulertzeko eta sentitzeko modu horretan gauza batzuk balio intrintsekoa dute, ezin dira ez erosi ez saldu, merkatuetatik kanpo gelditzen dira; gizakiaren duintasun-zentzuaren alderdi bere-berezkoak dira, beste pertsonak, arbasoak, natura, ordena unibertuala errespetatzeko gizatasunaren alderdi bere-berezkoa; kontrakoa bandalismoa da.

Eta *Kultura* esaten dut ezen, urarekin eta errekekin izan beharreko harreman kulturaletik ez bada, ezingo ditugulako alde batera utzi dirugoseak eragindako uraren eta erreken ustiaketa, suntsipena dakarren ustiaketa, uraren, erreken gaitasun hidroelektrikoaren eta erreken zein erreka-ertzen espekulazioa dakarren ustiaketa, diru publikoa mugitzen duten obra hidrauliko handiak; eta horrela lurraldeen erabateko holokausto hidrologikorantz abiatuta jarraituko dugu, bizimoduaren erabateko pribatizazio-eredurantz, ikuspegi merkantilistaren menpe; eta zentzugabekeriaren muturrera iritsiko gara: arnasa eta zoriontasuna neurtzeko gailuak eramango ditugu erantsita, eta enpresa kontzesiodun batek kobratu egingo digu arnasten dugun airea eta Haziendak fiskalizatu eta kobratu egingo digu bizi izandako zoriontasuna. Zentzugabekeriaren erreinua, harik eta lehertu arte.

Eta *Berria* esaten dut ezen orain artekoak dozena erdi hamarkadatan gaur egungo suntsipen-egoerara eraman gaituelako eta ez digulako balio. Oinarri eta konpromiso berriak ezarri behar ditugu. Gaur egungo umeek ez dute erreken handitasuna ezagutu, erreken ordeztu igerilekuak eman dizkiegulako. Ur industrialez, tratatutako urez, usainduna eta korrosiboa den urez, ehunak, azalak eta begietako korneak kaltetzen dituen urez beteta dauden toki geometriko pilatuak dira igerilekuak; igerilekuek ez dituzte ahalbidetzen elkarriketak biziarekin, ingurune esterilizatua direlako, betiereko ibiliaren magiarik gabekoak; kulturalki eta emozionalki urarekin erabateko lotura duten emankortasuna eta kristalinitatea moduko kontzeptu handiek ez dute tokirik igerilekuetan, gardentasun kimikoa eta artifiziala baino ez daudelako bertan. Inork ezin du imajinatu Sidharta igerilekuaren ertzean eserita, urari begira eta gizakiaren bizia eta patua ulertzen.

Gogoeta hauei amaiera emateko, ipuin sufi bat kontatuko dizuet, ondo adierazten baitu orrialde hauetan zehar azaldu nahi izan dizuedanaren esentzia, gaur egun nagusi den baldarkeria:

“Iturburuko urak,
lurraren barrenetik kantuz jaio zenean,
eguzkiaren argia egia bakarra zela pentsatu zuen.

Errekasto bihurtu zenean pentsatu zuen ur-ertzean zegoela
ordura arte imajinatu ere ezin izan zuen guztia.

Errekastoak, erreka handira iritsi zenean,
bere buruari esan zion iritziz aldatu beharrean zegoela.

Erreka itsasora iristean, mutu geratu zen, harrituta,
itsasoak lur osoa inguratzeaz gain
zeruarekin bat egiten zuen zeruertzean.

Eguzkiaren beroak lurrundu zuenean eta airera iritsi zenean
handik goitik ikusi ahal izan zituen iturburua,
errekastoa, erreka handia eta itsasoa,
zeharkatutako lurralde guztiak
eta berarengandik edan zuten bizidun guztiak.

Orduan ulertu zuen
Egia ez dagoela ez han eta ez hemen,
alde guztietan dagoela
egiaren zatitxo bat
eta ikasteko zerbait

Lurrera berriz itzuli zenean
euri bihurtuta,
jaiotzako jatorrira,
ulertu zuen Egia
bere baitan ere bazegoela
eta ez bakarrik kanpoan,
uretan.

Egia Bat dela
eta Guztian dagoela,
itxura askoren azpian gordeta.

Baina... Zer daki horri buruz
urmaelea harrapatuta geratu zen arrainak?"



RESUMEN

Hoy quiero llamar la atención sobre el hecho de que el agua y los ríos, y menos lo que de ellos va quedando, puede ser ya gestionado simplemente como un recurso, sino como algo que no puede ser vendido ni privatizado, porque por su propia esencia es un bien público, con todo el profundo significado emocional para la propia dignidad humana que tiene el carácter de lo que por sus propia naturaleza es público.

[...]

La realidad que nos lleva a hablar del agua y de los ríos y a que los medios se hagan eco de ello, suelen ser la reactivación del discurso del agua en relación con los eternos proyectos de grandes embalses y los planes hidrológicos que los contemplan, que los poderes sectoriales del mundo de la construcción, la ingeniería de la gran obra pública, el sector hidroeléctrico, la agricultura y la especulación del valor de la tierra, sea la agrícola o la asociada al negocio inmobiliario en el litoral mediterráneo, en connivencia con el poder político de turno.

Por otro lado están quienes sin ser directamente afectados, entienden que en la medida que un patrimonio de naturaleza y de belleza es destruido en aras de un falso sentido del progreso, los afectados somos todos, junto a una minoría de científicos comprometidos, que desde un punto de vista, sea hidrológico, ecológico o económico entienden que determinadas obras son injustificables, que obedecen a una dinámica impulsada desde la codicia de determinados poderes económicos que no tienen límite de satisfacción posible, que lo que persiguen es la privatización fáctica de un patrimonio de naturaleza y la gestión de un recurso tan necesario, insustituible y estratégico como el agua, desde la hipocresía de la demanda social, el progreso, el interés general y siempre desde un pretendido y falso respeto al medio ambiente.

[...]

De forma abreviada al referirnos a ese fenómeno humano utilizamos una expresión abreviada: *la fluvio*. Hoy *la fluvio* es ya una pequeña iniciativa humana a modo de reacción ante una realidad social dominante que necesita un golpe de timón; es una filosofía de aplicación a escala personal y grupal, que desde el escenario de los ríos vividos desde dentro trata de ayudarnos a comprender la condición humana y su condición actual, que no es otra que la profunda crisis cultural en la que está inmersa la gran familia humana como consecuencia de unas décadas de sometimiento a las dinámicas y exigencias de un llamado “progreso” y sus

múltiples coartadas; un modelo de progreso objetivo de si mismo, que no está tanto al servicio del desarrollo del ser humano sino de los intereses de unos sectores minoritarios de la sociedad

[...]

Tenemos que entender que mientras el agua sea un instrumento de poder, generador de dinero y negocios, la apetencia del ser humano por ella no tendrá límite de satisfacción, de manera que nuestro sino es y será la barbarie. La única manera de detener ese proceso sería la instauración de una cultura del respeto, una nueva cultura del agua, capaz de verla, y entenderla y sentirla en lo que es y significa para la naturaleza y para el ser humano.

PIPA ÁLVAREZ ENRICH (Ikusentzunezkoa)

pipaalvarez@gmail.com

Zaragoza 1964. Fotógrafa de profesión y piragüista de corazón. Desde el año 2005 colaboro con colectivos y organizaciones ecologistas en proyectos dedicados a la defensa de los ríos. En 2008, participo en una travesía en kayak por el río Ebro, organizada por Javier Martínez Gil, hidrogeólogo y filósofo de la Fluviofelicidad. A partir de entonces, fascinada por la experiencia de atravesar un territorio paleando por el río, capto imágenes de gente disfrutando de entornos fluviales y fotografío la belleza de los ríos vistos desde su cauce.





TXOMIN AMASORRAIN (Ikusentzunezkoa)

Txomin Amasorrain, 1908, Bergaran kultur sortzaile eta eragile garrantzitsua izan zen. Bere jarduera multidisziplinarra izan zen arren, argazki zaletasuna nabarmendu behar da. XX. mende Erdiko Bergararren bizimodua ezagutzeko argazki eta filma bilduma aberats eta baliotsua utzi zuen.





EMILIO GASTÓN (Eskultorea eta poeta)



(Zaragoza, 8-I-1935). Político, abogado, poeta y escultor. Fue nombrado Primer Justicia de Aragón democrático, en 1987, por acuerdo unánime de las Cortes de Aragón, permaneciendo en el cargo hasta 1993. Fue miembro de la Comisión del Patrimonio Histórico Artístico de Aragón. Poeta desde muy joven, fue miembro adscrito a la famosa O.P.I. (Oficina Poética Internacional, colaborando en numerosas revistas literarias. Fue cofundador de la Editorial Coso Aragonés del Ingenio, una de las más activas y prolíficas desde 1957 y del periódico Andalán.

Ha publicado los siguientes libros de poesía: El hombre amigo del mundo, 1958; Y como mejor proceda, 1976; Pronunciamiento, 1978; Abandonado en el ensueño como único vehículo de confianza, 1981; Musas enloquecidas, 1987; El despertar del hombre selva, 1987; Emilio Gastón. Antología Épica, 1990; y Manifiestos, 1995, Acracia Feliz (2007) y La Subordania: epopeya chesa sin d'acabanza 2007.

Como escultor, el espíritu de su obra queda reflejado en su «Manifiesto del Hierro». Sus esculturas, con ecos literarios y mitológicos, conectan con el surrealismo y la abstracción.

Su derroche de bondad y sensibilidad es palpable en toda su trayectoria profesional literaria artística y sobre todo humana. Sigue tomando parte activa de numerosas asociaciones defensoras de los derechos ciudadanos.

Actualmente está terminando varios libros de poemas y creando nuevas esculturas en las que musas y seres míticos transmiten la voz de la Naturaleza, y muestran al ser humano como contemplador y defensor paisajístico.

<http://emiliogastonubepensador.blogspot.com/>

AVE FÉNIX

**...Y se creían que era un pavo real y un presumido
aun saliendo del fuego y renaciendo de mis propias cenizas.**

**Algunos ornitólogos no controlan especies mitológicas
que trascienden a la vida y la muerte.**

*

**Las cenizas ardientes nos anuncian
la llegada del día contestatario
y hemos de abrir de nuevo los armarios para desempolvar las
ilusiones.**

**Ha de venir un mundo diferente
de entendimiento humano y abrazo planetario.**

**Desde ahora...
debemos prepararnos para salir a recibirlo.**



GARGANTUA

Prosigue dialogando

con gran comedimiento y contención.

Sé que te sientes inspirado y vienes de estar

con Pantagruel y Rabelais.

Espero que me cuentes el resultado del encuentro.




EL GATO OBNUBILADO

**Soy sujeto y objeto del saber, de la gatología filosófica.
Soy instintivo, sí, pero además ... razono y digo...**

**Soy un contemplador
extraviado:
aviso a los poetas de los peligros de la noche.**

✻

**Todos los animales del mundo somos iguales
y cuando vuelva a sorprendernos
el escalofrío conjunto
proclamaremos libres a los hombres sensibles
y escaparemos a la eternidad por la salida de emergencia.**



LA ESPELUNGA DEL SANTÓN

**Los Santos Inocentes arreglan el tejado del limbo
para conmemorar un cumpleaños que no acabará nunca
pues las obras permanecen eternas.**

**Nos lo dice el enano diminuto del suelo de la gruta
que mora de santón anacoreta.**

**Es un purgatoriense aventurero
que busca yacimientos, o museos,
o tesoros perdidos en las islas lejanas.**



LAS CRESTAS DE BERNERA

**Todo el desorden era verde con un toque de nube
y la imaginación era la imagen tras la imagen
en paraísos sucesivos.**



MINOTAURO CARCA

... y prepotente.

**Sigue mandando amigo,
mal empleado humano,
hermano muermo.**

**Tú que pudiste convertir en sueño
cuanto tenías en potencia virgen
duermes en tu despacho dieciseisavo F
mientras te violan la conciencia
con un plumero confortable.**

¡Qué hacer por tu soñar!



MONUMENTO A LA LÁGRIMA

-¿No hay nada para mis lágrimas?- dijo el contemplador de injusticias y masacres del Mundo.

-¿No hay siquiera un amor para llevarme a la más impaciente de mis debilidades?

- No, no nos queda esperanza.

-Es muy difícil ser humano sin serlo...

-¿Ni siquiera con paz?

-¡Sí!, -contestó “la estrella de las lágrimas”-;

esa revolución se llamará

“fraternidad universal humana”,

pero..

... ¡cuánto miedo tenéis;



SISIFO

**Sísifo o el humano rebelde
remontando la piedra eternamente.**

**Tal vez un día
el hombre será libre
para crear nuevos mitos hermosos.**



Aurkibidea

Udalaren agurra.....	1
Montse Castellà (Abeslaria)	3
Javier Martínez Gil	6

Ura eta Errekak. Uraren eta aurrerapenaren kultura berria. Flubiozoriontasunaren esperientzia:

I.- Errekak: zer dira eta zer esanahi dute?	7
II.- Noiz hasi zen hondamendia.....	15
III.- Begiitsuak...negarrik ez.....	17
IV.- Noiz eta zergatik hitz egiten dugun urari eta errekei buruz	22
V.- Zibilizazio-krisiaren marko orokorra	32
VI.- Gure arazoak urarekiko	34
VII.- Zaldi gainetik jausi nintzenekoa	36
VIII.- Flubiozoriontasunaren esperientzia	39
IX.- Uraren kultura berria.....	44
Resumen	49
Pipa Álvarez Enrich (Ikusentzunezkoa)	51
Txomin Amasorrain (Ikusentzunezkoa)	53
Emilio Gastón (Eskultorea eta poeta)	55
- Ave Fénix	
- Gargantua	
- El gato obnubilado	
- La espelunga del santón	
- Las crestas de Bernera	
- Minotauro Carca	
- Monumento a la lágrima	
- Sísifo	



Argazkia: Pipa Álvarez

